



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN  
2012. URTERAKO AURREKONTU OROKORREN  
LEGE-AURREPROIEKTUAREN GENEROAREN  
ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA**



|                                                                                                                                                       | Orr. |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|
| 1. HITZAURREA                                                                                                                                         | 3    |
| 1.1. Kontzeptu-esparrua                                                                                                                               | 3    |
| 1.2. Arau-esparrua                                                                                                                                    | 4    |
| 1.3. Proiektuaren deskribapen orokorra                                                                                                                | 5    |
| 1.4. Txostenaren egitura                                                                                                                              | 7    |
| 2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA, ESKU-<br>HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPARRUEI LOTUTA.                                                      | 10   |
| 3. ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO<br>ORDEZKARITZARI BURUZKO AZTERKETA                                                                   | 65   |
| 4. GASTUAREN AZTERKETA. AURREKONTU-PROGRAMEN AZTERKETA                                                                                                | 75   |
| 5. DIRU-SARRERAREN AZTERKETA.                                                                                                                         | 81   |
| 6. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA                                                                                             | 87   |
| 7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO<br>ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK. AURREKONTUAK<br>GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA | 96   |
| 8. AURREKONTU-PROGRAMEN ERANSKINAK, SAILKA.                                                                                                           | 99   |
| 8.1 Eranskina: Lehendakaritza                                                                                                                         | 99   |
| 8.2 Eranskina: Herrizaingo Saila                                                                                                                      | 10   |
|                                                                                                                                                       | 1    |
| 8.3 Eranskina: Ekonomia eta Ogasun Saila                                                                                                              | 10   |
|                                                                                                                                                       | 4    |
| 8.4 Eranskina: Justizia eta Herri Administrazio Saila                                                                                                 | 10   |
|                                                                                                                                                       | 5    |
| 8.5 Eranskina: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila                                                                                               | 10   |
|                                                                                                                                                       | 9    |
| 8.6 Eranskina: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila                                                                                 | 11   |
|                                                                                                                                                       | 1    |
| 8.7 Eranskina: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila                                                                                                     | 11   |
|                                                                                                                                                       | 8    |
| 8.8 Eranskina: Osasun eta Kontsumo Saila.                                                                                                             | 12   |
|                                                                                                                                                       | 6    |
| 8.9 Eranskina: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza<br>Saila                                                                      | 13   |
|                                                                                                                                                       | 4    |
| 8.10 Eranskina: Kultura Saila                                                                                                                         | 13   |
|                                                                                                                                                       | 8    |



## 9. SAILEI INFORMAZIOA ESKATZEKO EREDUA

14

2

## 1.- HITZAURREA.

## 1.1 KONTZEPTU-ESPARRUA

Aurrekontua gobernuaren aukera politikoak islatzen dituen agiria da, diru-sarrera eta gastuen plangintzaren bitartez garapen eta hazkuntza ekonomikorako helburuak lortzeko erabiltzen den tresna. Horrela bada, aurrekontuen bitartez, enplegua susta daiteke, baita prezioen egonkortasuna, hazkuntza ekonomikoa, ingurumenaren iraunkortasuna eta beste hainbat gauza ere. Izan ere, Pregs Govender-ek dioen bezala: “aurrekontu publikoak herrialde baten balioak islatzen ditu: nor estimatzen duen, noren lana balioesten duen, nor saritzen duen horren ondorioz, eta nor, zer eta noren lana ez den balioesten ez saritzen”.

Horrenbestez, oinarritzat hartzen badugu aurretiazko diru-sarreraren eta gastuen bitartez ezartzen dituela gobernuak bere lehentasunak eta horien bitartez jarduten duela herritarren beharrezanean erantzuteko, horietatik landu beharko da genero-ikuspegia, eta horietatik aztertu beharko da zein neurritan egiten zaion mesede edo kalte emakumeen eta gizonen berdintasunari.

“Ez-sexistak diruditen erabaki politikoek eragin ezberdina izan dezakete emakume eta gizonengan, nahiz eta ondorio horiek ez aurreikusi ez desiratu. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa egiten da asmo txarrez eragindakoa ez diren ondorioak saihestearren eta politiken kalitate eta eraginkortasuna hobetearren”.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Generoaren arabera eragina ebaluatzeko Europako Batzordearen gida



Beraz, generoaren araberako eraginaren txostenaren bitartez, argi ikusten da politika publikoak ez direla neutroak generoari dagokionez, baizik eta itsuak edo sorgorrak direla generoarekiko. Hau da, ez dituzte kontuan hartzen emakume eta gizonen eginkizun eta jarrerak eta, jakina denez, horiek guztiak zehaztuta daude gizartean: emakumeak ez daude gizonen egoera berean, indar gutxiago baitute ekonomia, gizarte, eta politika alorretan. Horrenbestez, ondorioz, ekintza edo politika jakin batek aukera gutxiago izan dezake emakumeen mesederako izateko edo desberdintasunak murrizteko. Hori guztia dela eta, esan daiteke generoaren araberako eraginaren txostenak herritarren beharrian eta interesak hobeto ezagutzen laguntzen duela eta, horrela, aukera ematen da ikusteko desberdintasunak zein eremutan diren nabarmenago eta, ondorioz, zeinek duen lehentasun handiagoa aginte publikoen esku-hartzea jasotzeko.

## 1.2 ARAU-ESPARRUA

Agiri hau Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18-20 artikuluetan xedatutakoa betez egin da eta, bereziki, 19. artikuluan xedatutakoa betez, honakoa baitio: «1.- *Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatze eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.*»

Gainera, 4/2005 Legeak honakoa dio 18.1 artikuluan: «*Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.*»



Aurrekontuak egiteari dagokionez, honakoa dio Berdintasunerako 4/2005 Legearen 14. artikulua: *“Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan”*.

Bestalde, txosten hau egitean *“genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko”* jarraibideei jarraitu zaie. Horiek, 4/2005 Legea betez, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 14ko 5/2007 EBAZPENEAN daude xedatuta.

### 1.3 PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

#### 1. – Araudi-proiektuaren mota:

Lege-proiektua

#### 2. – Proiektuaren izena.

Lege-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onesten dituen.

#### 3. – Zein administrazio-organok eman duen.

Gobernu Kontseilua, Ekonomia eta Ogasun sailburuordeak proposatuta.

#### 4. – Proiektuarekin lotuta dauden beste arau, plan, eta gisako batzuk.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak honela eratzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak: *“Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomia- edo aurrekontu-ekitaldi bakoitzean egin behar duen ekonomia-jardueraren programa baten bidez zuzenduta dago, eta, programa hori osatzen duten erabakiak batu ondoren, adierazpide formala ematen zaie, agiri bidez, bai finantzen aldetik, bai kontabilitatearen aldetik azalduta egoten dena”*. Legezko testu horren 5.1.



artikulua eta, era berean, *“Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideen administrazio zuzenaren kontrolerako tresna”* dira. Horrenbestez, jarduera publiko orokorraren diru-sarrerak eta gastuak jasotzeaz gain, aurrekontu-zuzkidura ematen diote indarrean dauden arau eta planen ondoriozko gastuen politiken garapenari. Beraz, jarduera publiko gehienekin zuzeneko harremana dutela ondoriozta daiteke.

#### 5. – Proiektuaren xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldirako aurrekontu orokorren onespena eta edukia.

#### 6.- Gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko helburuak

Egia da Berdintasunerako 4/2005 Legeak 14. artikuluan dioela administrazioek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituztela euren aurrekontuetan baina, hala ere, errealitatean, EAEko 2012rako aurrekontuen legeak ez du berariazko zenbatekorik izendatzen berdintasun-politiketarako. Salbuespena da Emakunderen aurrekontua, badagoela legean zehaztuta, organismo autonomoaren izaera juridikoa duelako.

Hala eta guztiz ere, txosten honetako “Gastuaren azterketa” izeneko 4. atalean zehaztu den bezala, sail batzuek helburu eta ekintza zehatzak aipatu dituzten euren aurrekontu-programetan, eta horietan aurrekontu-partida zehatzak daude desberdintasunak kendu eta murrizteko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko. Kasu batzuetan ezin izan zaio aurrekontu-krediturik esleitu ekintzari eta, ondorioz, gutxi gorabehera kalkulatu da gastua. Gainerako kasuetan ezin izan da zenbatekorik laburbildu, eta kreditu identifikagarririk gabeko ekintzak izendatu ditugu horiek.

Berdintasunerako legearen 14. artikulua betetzeko genero-ikuspegia kontuan hartuta egin behar dira aurrekontuak, eta txosten honen “Aurrekontuak genero-ikuspegia kontuan hartuta” izeneko 7. atalean dago zehaztuta hori.



## 7. – Proiektua zabaltzeko erabiliko diren bideak:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Erakundearen web gunean informazioa jartzea ([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net))

### 1.4 EGITURA.

Aurreko urteetan EAEko aurrekontu orokorren generoaren arabera eragina aztertzeke egin diren txostenak aztertuta, baita Emakundek egindako egiaztapen-txostenak aztertuta ere, hainbat hausnarketa eragin dira EAEko Aurrekontu Orokorren generoaren arabera eraginaren txostenaren egitura eta edukia aldatzeko beharrari buruz.

Horrela bada, aurreko urteetan eskuratutako esperientziaren ondorioz eta eremu honetako beste administrazio batzuei euren ekimenei buruzko informazioa eskatzearen ondorioz, honako egitura hau lortu da. Egitura honek, besteak beste, honako berrikuntza hauek dakartza: 1) Ikuspegi orokorra eskaintzen da EAEren eremuan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasun handienei buruz, herritar guztiak kontuan hartuta eta jarraibideetan, Berdintasunerako V. Planean eta 4/2005 Legean ezarritako irizpideen arabera antolatuta. 2) Aurrekontu-programa guztien azterketa eta analisisa eskaintzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko, berariazko diskriminazio-egoerak indargabetzeko edo berariazko problematikak arintzeko helburuak dituztenak antzemateko eta horien kostu ekonomikoa laburbiltzeko aukera ematen duela.

Gainera, EAEko administrazioako langileen sexuaren arabera ordezkartzari buruzko azterketa aztertzen duen atal bat ere sartu da, beritasun moduan. Horrela, alde batetik, taldeka sailka daitezke araua egiten parte hartu duten pertsonak, administrazioako kideak izatearen ikuspegitik.



Eta, bestetik, erakundea berdintasunezkoa den ala ez ikusteko aukera ematen da.

Zalantzarik gabe, EAEko gizon eta emakumeen egoeraren azterketa orokorraz gain, berritasun aipagarriena da sail guztiek egin dituzten aurrekontu-programen azterketa egin dela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila izan ezik. Azterketa honek, neurri handi batean, aukera eman du gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatu eta egon litezkeen desberdintasunak kendu edo murrizteko ekintzak ezagutzeko eta, guztiz ez bada ere zati handi batean, ekintza horiek lortzeko erabiltzen den aurrekontu-partida antzemateko. Hori lortzearren, Ekonomia eta Ogasun Sailak 9. atalean erantsi den eredua bidali die sail guztiei, txosten hau egiteko informazio zehatza eskatu zaiela bertan.

Sail guztiek eman diote eskatutako informazioa Aurrekontu Zuzendaritzari. Hala ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinarazi du bere aurrekontuaren gaur egungo egiturak ez duela aukerarik ematen genero-ikuspegia garatzen duten ekintzak berariaz identifikatzeko, helburu zabalgoetan sartuta daudelako. Inguruabar horrek bere aurrekontuaren zati handi bati eragiten dio eta, ondorioz, banakako partidak identifikatzeak nabarmen gutxietsiko luke berdintasunaren alde eta emakume eta gizonen arteko balizko desberdintasunak kendu edo murriztearen alde garatzen duen lana.

Azkenik, txostenaren atalei dagokienez, aipatu beharra dago EAEko diru-sarreraren eta fiskalitatearen inguruko azterketa txiki bat egin dela, nahiz eta urrun dagoen diru-sarreraren generoaren ikuspegiaren arabera azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egitetik, helburu hori "Aurrekontuak genero-ikuspegia kontuan hartuta" izeneko 7. atalean aipatzen den proiektuan agertu beharko litzatekeela.

Amaitzeko aipatu behar da agiri honen egiturak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen generoaren arabera eraginari buruzko txostena



egiteko eredu propioa abiarazi duela. Eredua prozesu ireki eta berritzailean dago, eta egokitu egin beharko da hurrengo aurrekontu-ekitaldietan eskuratuko diren emaitzen arabera, baita aurrekontu publikoak genero ikuspegiarekin ezartzen doazen heinean ere.

Generoaren araberako eraginari buruzko txostena behar bezalakoa izateko, beharrezkoa da sail guztiek parte hartzea. Gainera, txostena egitea gai honetako jakintzak handitzeko aukera moduan har dezakete txostena egiten parte hartzen dutenek.



## 2.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA, ESKU-HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPARRUEI LOTUTA.

Atal honetan, aurrekontu-programen eraginak dituen gizarte-testuingurua kontuan hartuta emakumeek eta gizonek EAEn duten egoeraren diagnosia biltzen da. Horrela, irizpide jakin batzuen arabera antolatuta, antzeman diren sexuaren ondoriozko ezberdintasunak jaso dira. Diagnosi honek, gero, aukera emango du balioztatzeko 2012. urterako aurrekontuek eragin positiboa edo negatiboa izango duten antzemandako ezberdintasunak murrizten edo kentzen, eta Euskadiko gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzen.

Egiturari buruzko atalean aipatu den bezala, irizpideak ezartzeko kontuan hartu dira Berdintasunari buruzko 4/2005 Legea, Berdintasunerako V. Plana eta 5/2007 Ebazpenean ezarritako jarraibideak. Hona hemen irizpideok:

- 1.1. DEMOGRAFIA
- 1.2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA
  - 1.2.1. Ekoizte-lana eta autonomia ekonomikoa
  - 1.2.2. Ugaltze-lana
  - 1.2.3. Pobrezia eta gizarte-bazterketa
- 1.3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA
  - 1.3.1. Hezkuntza-baliabideak
  - 1.3.2. Osasun-baliabideak
  - 1.3.3. Kultura- eta kirol-baliabideak
- 1.4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA
  - 1.4.1. Parte-hartzea erakundeetan
  - 1.4.2. Parte-hartzea beste organo batzuetan
- 1.5. ERANTZUKIDETASUNEZKO GIZARTE-ANTOLAKUNTZA
  - 1.5.1. Denboraren erabilera
  - 1.5.2. Zaintzarako zerbitzuak
- 1.6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Aipatutako atalak aztertu dira jarraian:

## 1. DEMOGRAFIA

### 1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria

| <b>Biztanleria, adin-taldearen, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera sailkatuta 2009</b> |         |             |      |          |             |      |           |             |      |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|-------------|------|----------|-------------|------|-----------|-------------|------|
| adina                                                                                           | Araba   |             |      | Gipuzkoa |             |      | Bizkaia   |             |      |
|                                                                                                 | Guztira | E%          | G%   | Guztira  | E%          | G%   | Guztira   | E%          | G%   |
| Guztira                                                                                         | 313.819 | <b>50,2</b> | 49,8 | 705.698  | <b>50,9</b> | 49,1 | 1.152.658 | <b>51,5</b> | 48,5 |
| 0-15                                                                                            | 43.792  | <b>49,0</b> | 51,0 | 103.022  | <b>48,5</b> | 51,5 | 151.699   | <b>48,6</b> | 51,4 |
| 16-44                                                                                           | 131.383 | <b>48,1</b> | 51,9 | 277.650  | <b>48,4</b> | 51,6 | 457.903   | <b>49,0</b> | 51,0 |
| 45-64                                                                                           | 85.344  | <b>50,3</b> | 49,7 | 193.415  | <b>50,4</b> | 49,6 | 318.430   | <b>51,3</b> | 48,7 |
| 65 eta<br>gehiago                                                                               | 53.300  | <b>55,9</b> | 44,1 | 131.611  | <b>58,5</b> | 41,5 | 224.626   | <b>58,8</b> | 41,2 |

Iturria: EIN. Erroldaren ustiapen estatistikoa

Adin-taldean arabera, EAEko emakumeen proportzioa gizonena baino txikiagoa da 45 urtera bitartean, eta adin horretatik aurrera, joera kontrakoa da: zenbat eta urte gehiago, orduan eta emakume-proportzio handiagoa. Distantzia hazi egiten da 65 urtetik aurrera. Adin horretan, emakumeak dira biztanleriaren % 58,3, eta gizonak, berriz, % 41,7.

Bizi-itxaropenari dagokionez, Euskadi Estatuko batezbestekoaren gainetik dago. Hemen, 85 urtekoa da emakumeen bizi-itxaropena, eta 78,4 urtekoa, berriz, gizonena (6,7 urteko aldea).

### 1.2 Biztanle atzerritarrek Euskal Autonomia Erkidegoan

2010. urtean Euskal Autonomia Erkidegoak 2.178.339 pertsonako biztanleria dauka, eta 139.369 pertsonako biztanleria atzerritarra. Biztanle atzerritarren % 48,4 emakumezkoak dira, eta % 51,6 gizonezkoak. Datu horiek adierazten du nolabaiteko oreka dagoela sexuen artean.-

Iturria: IKUSPEGIk eginda, EINen datuak erabiliz.



### **1.3 Etxearen batezbesteko tamaina EAEn**

2008an 842.188 etxe zeuden EAEn eta, urte horretako biztanleria osoa kontuan hartuta (2.120.925 pertsona), etxe bakoitzaren batezbesteko tamaina 2,5 pertsonakoa zen.

Iturria: 2010eko zifrak

## **2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA.**

- 2.1. EKOIZTE-LANA ETA AUTONOMIA EKONOMIKOA
- 2.2. UGALTZE-LANA
- 2.3. POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA

### **2.1. EKOIZTE-LANA ETA AUTONOMIA PERTSONALA**

#### **2.1.1 Emakumeen eta gizonen enplegu-tasa, EAEn.**

EUSTATEk egindako Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren (BJA) emaitzek diote 2011ko lehenengo hiruhilekoan lan-tasak pixka bat egin duela behera. Enpleguak maila txikiena du krisia hasi zenetik. Azken hiru urteetan EAEk enpleguaren % 4,9 galdu du.

Krisia hasi zenetik igaro diren hiru urteetan gizonen enpleguak % 8,9 egin du behera, eta emakumeena bere horretan mantendu da. Emakumeek 2011ko lehenengo hiruhilekoko enpleguan izan duten pisua % 45,2koa da.

20 eta 64 urte bitarteko enplegu-tasa EAEn % 67,8koa izan zen 2010eko lehenengo hiruhilekoan. Adin-tarte horretan % 73,8koa da gizonen enplegu-tasa eta % 61,7koa emakumeena.

#### **2.1.2 Emakumeen eta gizonen lan-tasa, EAEn.**



2011ko bigarren hiruhilekoan, gizonen lan-tasa % 56,8koa da EAEn, eta emakumeena % 44,4koa.

### 2.1.3 Enplegu-tasa, jarduera-sektoreen arabera

| Enplegu-tasa, jarduera-sektoreen arabera. EAE eta Europa |         |      |      |                              |      |      |
|----------------------------------------------------------|---------|------|------|------------------------------|------|------|
|                                                          | EAE     |      |      | 27ko Europar Batasuna - 2009 |      |      |
|                                                          | Guztira | G    | E    | Guztira                      | G    | E    |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza                   | 0,6     | 1,0  | 0,3  | 3,0                          | 3,7  | 2,2  |
| Industria                                                | 15,2    | 24,0 | 6,2  | 11,5                         | 16,5 | 6,6  |
| Eraikuntza                                               | 5,1     | 9,2  | 1,0  | 5,1                          | 9,3  | 0,9  |
| Merkataritza, ostalaritza, garraioa                      | 15,9    | 15,5 | 16,3 | 15,1                         | 16,8 | 13,5 |
| Informazioa eta komunikazioa                             | 1,9     | 2,2  | 1,5  | 1,8                          | 2,5  | 1,1  |
| Bankuak eta aseguruak                                    | 1,8     | 1,9  | 1,7  | 2,0                          | 1,9  | 2,1  |
| Higiezin jarduerak                                       | 0,2     | 0,1  | 0,3  | 0,5                          | 0,5  | 0,5  |
| Zerbitzu profesionalak                                   | 6,3     | 6,3  | 6,4  | 5,6                          | 5,8  | 5,4  |
| Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna               | 13,8    | 8,9  | 18,9 | 16,0                         | 10,6 | 21,4 |
| Kultura-jarduerak eta bestelakoak                        | 4,3     | 2,5  | 6,1  | 3,3                          | 2,2  | 4,4  |
| Guztira                                                  | 65,1    | 71,6 | 58,6 | 64,4                         | 70,3 | 58,5 |

Iturria: EUSTAT-BJA

Lan egiten duten emakumeen % 85 zerbitzuen sektorean dabilta lanean, eta sektore horretan gehiago dira emakumeak gizonak baino. Zerbitzuetan lan egiten duten gizonen proportzioa % 43,9koa da. Eraikuntzako langileen artean, emakumeak oso gutxi dira, % 5,1 bakarrik; industrian apur bat



gehiago daude % 18,0, eta lehenengo sektorean % 25,9. Zerbitzuen sektorean 5 langiletik 3 emakumeak dira.

Enplegu-tasa jarduera-banaketaren arabera kontuan hartuta, nabaria da lehenengo sektoreak ez duela indar handirik EAEn eta, ondorioz, emakumeen artean. Europan bezala, merkataritza, ostalaritza eta garraioan, eta administrazio publiko, hezkuntza eta osasunean daude emakume langile gehienak. Merkataritzan eta ostalaritzan EAEko emakumezko langileek Europakoek baino enplegu-tasa handiagoa dute. Euskadin emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira jarduera-talde horretan, eta Europan ez da hori gertatzen, gizonezkoak gehiengoa baitira merkataritza eta ostalaritzako langileen artean. Administrazio publiko, hezkuntza eta osasuneko jardueretatlan emakume asko daude, baina hala ere talde horretako jardueretako enplegu-tasa Europa mailako tasa baino % 2,5 txikiagoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan industria-sektoreak pisu handia duen arren, EAEko emakumeen enplegu-tasa Europar Batasun osokoa baino txikiagoa da industria-taldeetan. Beraz, nabaria da EAEn gizon gehiago dabilela industrian. Euskadiko industrian lan egiten duten pertsonen % 18,6 bakarrik dira emakumezkoak. Bertako lau emakumetik batek metalurgiaren eta metalezko produktuen sektorean egiten du lan. Emakumeen kopuru absolutu handiena duen bigarren sektorea elikadura-industrien, edarien eta tabakoena da, industria-sektorean lan egiten duten emakumeen % 14,5 dabilatzala bertan.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektoreetan gizonak dira gehienak. Nekazaritza-ustiategien azken erroldako behin-behineko datuen arabera (2009), ustiategien titularrak diren emakumeen proportzioa gero eta handiagoa da urteak igaro ahala, eta gaur egun % 32koa da. Ustiategien buru diren emakumeen proportzioa ere handitzen dabil, baina oraindik urrun dago orekatua izatetik.

**2.1.4 Enplegu-tasa, lan-taldeen arabera****Enplegu-tasa, lan-taldeen arabera. EAE eta Europa**

|                                              | EAE     |      |      | 27ko Europar Batasuna - 2009 |      |      |
|----------------------------------------------|---------|------|------|------------------------------|------|------|
|                                              | Guztira | G    | E    | Guztira                      | G    | E    |
| Zuzendariak eta goi-mailako kargudunak       | 3,1     | 4,4  | 1,8  | 5,4                          | 7,1  | 3,7  |
| Profesional intelektualak eta zientzialariak | 12,8    | 11,8 | 13,9 | 9,2                          | 9,4  | 9,1  |
| Laguntza-teknikariak                         | 12,5    | 11,3 | 13,8 | 10,7                         | 9,8  | 11,6 |
| Enplegatu administrariak                     | 2,8     | 2,6  | 2,9  | 6,9                          | 4,3  | 9,6  |
| Zerbitzu eta salmentetako langileak          | 11,0    | 6,6  | 15,4 | 9,0                          | 5,6  | 12,4 |
| Nekazariak eta arrantzaleak                  | 0,6     | 1,0  | 0,3  | 2,5                          | 3,1  | 1,8  |
| Industriako langile kalifikatuak             | 9,3     | 17,4 | 1,0  | 8,6                          | 15,4 | 1,7  |
| Gidariak eta operadoreak                     | 7,4     | 12,7 | 2,1  | 5,2                          | 8,7  | 1,7  |
| Kalifikazio gabekoak                         | 5,4     | 3,6  | 7,2  | 6,2                          | 5,9  | 6,5  |
| Guztira                                      | 64,9    | 71,4 | 58,4 | 64,4                         | 70,3 | 58,5 |

Iturria: EUSTAT-BJA

Emakumeen enplegu-tasa handiagoa duten lan-taldeak zerbitzu eta salmentetako langileenak dira, emakume gehiago daudela bertan. Emakumeak gizonak baino gutxiago dira zuzendarien eta goi-mailako kargudunen taldean, baina gehiago dira profesional intelektual eta zientzialarien taldean eta laguntza-teknikarien taldean. Horietan, emakumeen enplegu-tasa oso handia da, eta emakume gehiago daude gizonak baino. Kalifikazio gabeko lanetan ere emakume ugari dago, eta horrelako lanetan askoz gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino. Hala eta guztiz ere, industriako langile kalifikatuak eta makinen operadore eta gidariak hartzen dituzten taldeetan gizonezkoak dira gehienak, eta oso gutxi dira lan-profil horietan dauden emakumeak.

Europar Batasun osoa kontuan hartuta, nabarmentzekoa da emakumeek pisu gutxi dutela administrarien lanetan, eta emakume gehiago daudela



profesional intelektualen, laguntza-teknikarien, zerbitzu eta salmentetako langileen eta kalifikazio gabeko langileen artean.

### 2.1.5 Enplegu-tasa, heziketa-mailaren arabera

#### Enplegu-tasa, heziketa-mailaren arabera. EAE eta Europa

|                                      | EAE     |      |      | 27ko Europar Batasuna -<br>2009 |      |      |
|--------------------------------------|---------|------|------|---------------------------------|------|------|
|                                      | Guztira | G    | E    | Guztira                         | G    | E    |
| Lehen mailakoak                      | 6,4     | 7,2  | 5,6  | 14,4                            | 16,9 | 11,9 |
| Bigarren mailakoak eta profesionalak | 35,6    | 43,1 | 27,9 | 31,8                            | 35,4 | 28,2 |
| Unibertsitatekoak                    | 22,9    | 21,0 | 24,9 | 18,1                            | 18,1 | 18,2 |
| Guztira                              | 65,0    | 71,4 | 58,4 | 64,6                            | 70,7 | 58,5 |

Iturria: EUSTAT-BJA

EAEko emakumeen enplegu-tasa oso handia da unibertsitate-ikasketak dituztenen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko gizonena baino ia 4 puntu gehiagokoa. Datu hori ondo ulertzeko kontuan hartu behar da gaur egun unibertsitate-ikasketak amaitzen dituzten emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa dela, emakumezko unibertsitarioen ratioa Euskal Autonomia Erkidegoan Europako altuenen artean dagoela, eta emakumeek zailtasun gehiago dituztela erdi-mailako edo behe-mailako kalifikazio-mailak behar dituzten jarduera batzuetan sartzeko, ondorioz kalifikazio handiagoa atera behar izaten dutela.

Europar Batasun osoarekin alderatuta, enplegu-tasa askoz txikiagoa da lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, antzekoa bigarren mailako ikasketak eta ikasketa profesionalak dituztenen artean, eta askoz handiagoa unibertsitateko ikasketak dituztenen artean.



### **2.1.6 Langabezia-tasa**

Euskal Autonomia Erkidegoan nabarmen hazi da langabezia azken urtean, ia 2 puntu. Ondorioz, langabezia-tasa Europako batezbestekoa baino 8 hamarren gehiagokoa da dagoeneko, guztira % 10,7koa, hau da, % 11,2koa gizonentzat eta % 10,2koa emakumeentzat. Beraz, langabezian dauden pertsonen % 57,3 gizonezkoak dira.

Erregistratutako langabeziari dagokionez, 2011ko apirilean 153.155 langabe zeuden erregistratuta, horietatik 75.152 gizonezkoak dira (% 49,1) eta 78.003 emakumezkoak (% 50,9). Aipatzekoa da datu hori hazi egin dela Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoen eta EGAILANen datu-baseak bateratu direlako, enpleguko eskumenak eskualdatzearen ondorioz bateratu zirela 2011ko martxoan.

### **2.1.7 Norberaren konturako lana**

Norberaren kontura lan egiten duten emakumeen ehunekoa gizonena baino txikiagoa da: Emakumeen % 11,2k egiten du lan norberaren kontura EAEn, eta % 17,6 dira horrela lan egiten duten gizonak. Norberaren kontura lan egiteko aukera gehiago duten sektoreetan (esaterako eraikuntzan eta industria eta zerbitzuetako talde batzuetan) emakume gutxiago egotea izan daiteke langile independenteen artean emakume gutxiago egotearen arrazoietakoa bat.

### **2.1.8 Laneko ezegonkortasuna**

Laneko ezegonkortasunak eragin handiagoa egiten die emakumeei gizonei baino. Aldi baterako lana duten emakumeen ehunekoa gizonena baino 10 puntu handiagoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan 2009an soldatapeko emakumeen % 26,3k zuen aldi baterako kontratua, eta gizonen % 16,5 zeuden egoera berean. Harrigarria da aldi baterako lanari dagokionez hain ezberdintasun handia egotea sexuen arabera. Europan ohikoa da emakumeek gizonek baino tasa handiagoa izatea aldi baterako lanaren arloan, baina ezberdintasuna ez da hain handia izaten.



### **2.1.9 Soldata-ezberdintasuna**

Lan-merkatuan deigarriena den gertaeretako bat da soldata-mailak oso ezberdinak direla sexu bateko eta besteko pertsonen artean. EINEK 2007an soldata-egiturari buruz egindako inkestako azken datuaren arabera, emakumeen soldata gizonen baino % 26,5 txikiagoa zen EAEn. Estatu guztirako datuak antzekoak dira, emakumeen soldata gizonena baino % 25,6 inguru txikiagoa baitzen.

Industriari dagokionez, soldata-ezberdintasuna txikiagoa da, hobeto egituratutako jarduera-sektorea baita. Hala ere, jarduera horietan ere emakumeek gizonena baino % 20,3 txikiagoa den ordainsaria jasotzen dute. Zerbitzuen sektorean ezberdintasuna % 28,5era artekoak dira.

Ezberdintasun hori, zati batean, emakumeek gizonekin alderatuz duten batezbesteko adinaren ondoriozkoa izan daiteke, edo emakume gehiago dabilatzalako txarto ordaindutako jarduera-sektoreetan, edo pisu handiagoa dutelako kalifikazio gabeko langileen artean. Baina, bestalde, neurtzeko zaila den arren, kultura inertiengatik ere azal daiteke (duela gutxira arte gizarteak normaltasunez ikusten zuen soldatapeko langileek soldata txikiagoak izatea), eta hori erauzi egin beharko litzateke.

### **2.1.10 Gizarte Segurantzako afiliazioa**

2011n afiliazioak behera egin du, bai gizonen artean (-% 0.73) baita emakumeen artean ere (-% 0,53). 2011ko apirilean, afiliatutako pertsona guztien % 44,6 emakumezkoak ziren.

Krisian daramatzagun hiru urteetan afiliatutako emakumeen ehunekoa % 2,8 hazi da. Hala ere, gizon gehiago daude afiliatuta, ia 100.000 gehiago.

Afiliatutako atzerriko pertsonen batezbestekoa, 2011ko apirilean, 52.388koa zen, EAEko guztizko kopuruaren % 5,65, gizonen % 5,5 eta emakumeen % 5,4.

Atzerriko emakumeen afiliazioa hazten ari da azkarren. Azken urtean % 6,1 hazi da, bertako emakumeen hazkuntza % 1,26koa izan dela.



**2.1.11 AOB langileak (arduraldi osoaren baliokidea), arlo edo diziiplina zientifikoaren, lanaren eta sexuaren arabera. 2009**

**AOB langileak, arlo edo diziiplina zientifikoaren, lanaren eta sexuaren arabera. 2009**

|                       | Ikertzaileak   |                | Teknikariak    |                | Laguntzaileak |              |
|-----------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|---------------|--------------|
|                       | G              | E              | G              | E              | G             | E            |
| <b>Guztira</b>        | <b>6.734,7</b> | <b>3.651,5</b> | <b>3.410,2</b> | <b>1.394,5</b> | <b>867,9</b>  | <b>631,6</b> |
| Zientzia zehatzak     | 755,6          | 608,6          | 122,2          | 81,2           | 17,4          | 56,8         |
| Ingeniaritza          | 4.796,4        | 1.854,8        | 2.930,9        | 913,2          | 720,0         | 394,0        |
| Medikuntza-zientziak  | 483,6          | 542,2          | 172,4          | 239,8          | 28,2          | 82,1         |
| Nekazaritza-zientziak | 151,2          | 158,3          | 83,4           | 67,9           | 73,0          | 19,8         |
| Gizarte-zientziak     | 547,9          | 487,6          | 101,4          | 92,3           | 29,3          | 78,9         |

Iturria: EUSTAT

2009an arduraldi osoaren baliokideak ziren landun pertsonak, arlo horretan, 16.690,4 izan ziren, eta horietatik % 65,98 gizonezkoak ziren. Lan-kategoriaren arabera, laguntzaileen artean izan ezik, gainerako kategorietan ez da parekotasun-printzipioa betetzen. Emakumeak % 34,02 dira ikertzaileen artean, eta % 29,02 teknikarien artean.

Emakumeen kopurua beti da txikiagoa ingeniaritzetan gainerako diziplinetan baino. Datu hori bat dator unibertsitateko egoerarekin: emakume gutxiago egoten da ikasketa horiek egiten. Hala ere, Euskadin ikerketa eta garapenean lan egiten duten pertsona gehienak ingeniaritzatik datoz, 16.690,4tik 11.609,4.



2.1.12 Langile-kopurua, gauzatze-sektorearen, lanaren eta sexuaren arabera.

**Langile-kopurua, gauzatze-sektorearen, lanaren eta sexuaren arabera. 2009**

|                                                        | Guztira |       | Ikertzaileak |       | Teknikariak |       | Laguntzaileak |       |
|--------------------------------------------------------|---------|-------|--------------|-------|-------------|-------|---------------|-------|
|                                                        | G       | E     | G            | E     | G           | E     | G             | E     |
| Guztira                                                | 17.551  | 9.113 | 10.856       | 5.747 | 5.113       | 2.270 | 1.579         | 1.097 |
| Enpresak eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak | 12.486  | 4.871 | 6.662        | 2.719 | 4.386       | 1.496 | 1.435         | 657   |
| Administrazio publikoa                                 | 1.225   | 1.246 | 692          | 618   | 487         | 575   | 46            | 53    |
| Goi-mailako irakaskuntza                               | 3.840   | 2.996 | 3.502        | 2.410 | 240         | 199   | 98            | 387   |

Iturria: EUSTAT

Ikerketa eta garapenean lan egiten duten pertsona guztien artean % 65,09 enpresaren batean dabil, baina % 28,06 bakarrik dira emakumeak. Horrek azaltzen du administrazio publikoarekin alderatuz dagoen alde handia, bertan parekotasuna ia % 50ekoa baita. Goi-mailako irakaskuntzan are handiagoa da ezberdintasuna, baina parekotasun-printzipioa betetzen da, emakumeen ordezkaritza % 43,82koa baita.



### 2.1.13 **Batezbesteko errenta pertsonala, errenta-motaren eta sexuaren arabera.**

#### **Batezbesteko errenta pertsonala, errenta-motaren (eurotan) eta sexuaren arabera. 2006.**

|                              | <b>Guztira</b> | <b>Emakumeak</b> | <b>Gizonak</b> | <b>E-G</b> |
|------------------------------|----------------|------------------|----------------|------------|
| Errenta guztira              | 17.362         | 11.857           | 23.224         | 11.367     |
| Lan-errenta                  | 11.002         | 7.058            | 15.202         | 8.144      |
| Kapital higigarrien errenta  | 1.702          | 1.550            | 1.865          | 315        |
| Kapital higiezinaren errenta | 258            | 280              | 233            | -47        |
| Jardueren errenta            | 966            | 543              | 1.416          | 873        |
| Transferentziak              | 3.433          | 2.425            | 4.507          | 2.082      |
| Errenta erabilgarria         | 14.598         | 10.194           | 19.287         | 9.093      |

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonal eta familiarraren estatistika

Oharra: E-G: Gizonen errenta – Emakumeen errenta.

Erosteke ahalmenean generoen aldea izugarria da oraindik emakumeen eta gizonen artean. Ikusi denez, emakumeen batezbesteko guztizko errenta pertsonala 11.857koa den bitartean, gizonena ia bikoitza da, 23.224koa. Egia da lana duten emakumeen tasa txikiagoa dela eta emakumeen artean gehiago direla lan partzialak dituztenak, baina generoaren araberako aldea gehiegizkoa da lan-errentan. Lan-errentaren ondoriozko diru-sarrerei dagokienez, gizonen diru-sarrerak emakumeen diru-sarreren bikoitza baino gehiagokoak dira. Batezbesteko errenta bakarra da handiagoa emakumeengan gizonengan baino, kapital higiezinari dagokiona, hain zuzen ere.

### 2.1.14 **Etxebizitza eskuratzeko beharra**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egin zuen “Etxebizitzen behar eta eskariei buruzko inkesta EAEn, 2008” izenekoaren 2009ko ekaineko emaitzen txostenaren arabera, etxebizitza eskuratzeko beharra duten galdetutako pertsonen % 43,48 emakumezkoak dira, eta % 56,51 gizonezkoak. Proportzio hori ez da gehiegi aldatu aurreko urteko inkestarekin alderatuz (% 44,7 eta % 55,3, hurrenez hurren).

Beharrizan handiena duen adin-tartea 25-34 urte bitartekoa da, bai gizonen artean eta bai emakumeen artean. Emakumeei dagokionez, adin



horretakoek azaltzen dute gehien etxebizitza behar dutela, guztizkoaren % 57k, eta gizonei dagokienez % 52k.

Eskaria dela eta, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunik handiena 35-44 urte bitartean dago. Eskatzaile guztiak kontuan hartuta, % 63,50 gizonezkoak dira eta % 36,50 emakumezkoak.

Beste alde batetik, Etxebiden inskribatutako gizonen eta emakumeen 2005 eta 2009. urteen arteko bilakaerak azaltzen du inskribatutako gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa dela urte guztietan, baina berdintzeko joera dagoela ematen duela: 2005. urtean 6,4koa zen aldea, eta 2009an 4,6koa izan da.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (2009)

#### 2.1.15 Etxebizitzaren eskaria.

##### **Etxebizitzaren eskaria, sexuaren eta adinaren arabera bereizita**

|         |         | Gizonak |        |       | Emakumeak |       |
|---------|---------|---------|--------|-------|-----------|-------|
|         |         | Guztira | Abs.   | %     | Abs.      | %     |
| Adina   | 18 - 24 | 29.130  | 16.641 | 57,12 | 12.489    | 42,87 |
|         | 25 - 34 | 50.027  | 27.243 | 54,45 | 22.784    | 45,54 |
|         | 35 - 44 | 12.197  | 7.746  | 63,50 | 4.451     | 36,49 |
| Guztira |         | 91.354  | 51.630 | 56,51 | 39.724    | 43,48 |

Iturria: Etxebide, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (2010)

Prestakuntzari dagokionez, etxebizitza eskatzen dute emakume eta gizonen artean ezberdintasun handiak daude. Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, gizonak % 74 dira; aldiz, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean, % 37,55 baino ez dira gizonak.

Etxebizitzaren beharrari buruzko beharrianari dagokionez, unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeak (% 52,72) eta ikasketa profesionalak dituzten emakumeak (% 30,40) dira etxebizitza eskari gehienak egiten dituztenak.



### 2.1.16 Euskadiko biztanle enplegu-emaileak, sexuaren arabera bereizita

#### 16 urte eta gehiagoko biztanle enplegu-emaileak (milaka) Euskal Autonomia Erkidegoan. 2010

|          | Gizonak | G%      | Emakumeak | E%      |
|----------|---------|---------|-----------|---------|
| Araba    | 1,6     |         | 1         |         |
| Gipuzkoa | 11,0    |         | 3,8       |         |
| Bizkaia  | 9,2     |         | 3,9       |         |
| GUZTIRA  | 12,8    | % 71,48 | 8,7       | % 28,52 |

Iturria: EUSTAT.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle enplegu-emaileen artean dagoen generoen arteko desoreka bereziki kezkagarria da. 2010. urtean enplegu-emaileen % 71,48 gizonak ziren, eta % 28,52 emakumeak.

### 2.1.17 Lanean dauden pertsonen sailkapena kontratuaren arabera, sexuaren arabera bereizita.

#### Soldatapean lanean dauden 16 urte eta gehiagoko biztanleak (milaka) Euskal Autonomia Erkidegoan, kontratu-motaren eta sexuaren arabera. 2010

|                                      | Gizonak | G%      | Emakumeak | E%      |
|--------------------------------------|---------|---------|-----------|---------|
| Mugagabea-finkoa                     | 341,1   | % 56,18 | 266,1     | % 43,82 |
| Aldi baterakoa                       | 72,1    | % 45,58 | 86,1      | % 54,42 |
| Kontraturik gabekoak eta bestelakoak | 2,2     | % 11,83 | 16,4      | % 88,17 |

Iturria: EUSTAT

Oro har, lanaren helburua pertsonen autonomia ekonomikoa lortzea bada, lanean dauden emakumeen lan-baldintzak gizonenak baino txarragoak dira. 2010ean soldatapean lanean zeuden 18.600 pertsona zenbatu ziren kontraturik gabe, eta 10etik ia 9 emakumezkoak ziren, hau da, 16.400. Soldatapean lanean dauden eta kontratu mugagabe edo finkoa duten emakumeak guztizko kopuruaren % 43,82 dira, eta gizonak ia % 13 gehiago.

**2.1.18      Gazteen egoitza-emantzipazioa****15 eta 29 urte arteko gazteen ohiko etxebizitza, sexuaren eta adin-taldearen arabera**

| Adina                                                                         | Guztira |             | Gizonak |       |       | Emakumeak   |       |       |       |
|-------------------------------------------------------------------------------|---------|-------------|---------|-------|-------|-------------|-------|-------|-------|
|                                                                               | 15-29   | 15-29       | 15-19   | 20-24 | 25-29 | 15-29       | 15-19 | 20-24 | 25-29 |
| Familiarekin (gurasoak, neba-arrebak...)                                      | 78,5    | <b>81,9</b> | 98,6    | 87,2  | 61,6  | <b>75,2</b> | 98,6  | 78,4  | 52,0  |
| Familia bizi ez den beste etxebizitza batean                                  | 19,1    | <b>16,3</b> | 0,5     | 10,4  | 36,4  | <b>22,0</b> | 0,0   | 17,9  | 45,2  |
| Lanegunetan beste etxebizitza batean; asteburuetan eta oporretan familiarekin | 1,2     | <b>0,8</b>  | 0,5     | 1,4   | 0,4   | <b>1,6</b>  | 1,4   | 2,7   | 0,4   |
| Bestelako egoerak                                                             | 1,1     | <b>1,1</b>  | 0,5     | 1,0   | 1,6   | <b>1,2</b>  | 0,0   | 1,0   | 2,4   |

Nabarmentzekoa da erabilgarri dauden azken datuen arabera, familiarekin bizi diren gizonen ehunekoa (% 81,9) familiarekin bizi diren emakumeen ehunekoa (% 75,2) baino handiagoa dela, baina kasu bietan gehienak familiarekin bizi direla. Aipatzekoa da ehuneko hori gero eta txikiagoa dela urterik urtera. Aldiz, familia bizi ez den beste etxebizitza batean bizi diren emakumeen ehunekoa (% 22) gizonen ehunekoa (% 16,3) baino pixka bat handiagoa da, baita astegunetan familiaren etxetik kanpo bizi diren emakumeena ere (emakumeak % 1,6 eta gizonak % 0,8).

**2.1.19      Gazteen jarduera-, lan- eta langabezia-tasak****16 eta 29 urte arteko biztanleriaren jarduera-, lan eta langabezia-tasak,**

**sexuaren arabera. 2010. Gazteen Behatokia**

|                 | <b>Guztira</b> | <b>Gizonak</b> | <b>Emakumeak</b> |
|-----------------|----------------|----------------|------------------|
| Jarduera-tasa   | 54,5           | 56,4           | 52,4             |
| Lan-tasa        | 44,5           | 44,6           | 44,4             |
| Langabezia-tasa | 18,4           | 21             | 15,3             |

Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), EUSTAT

Gaur egungo datuen arabera, jarduera-tasa pixka bat handiagoa da gizon gazteen artean (% 56,4) emakume gazteen artean baino (% 52,4), ehuneko 4 puntuko aldearekin. Bertatik uler daiteke adin aktiboan dauden eta biztanle aktibo moduan zenbatzen diren gizon gazteen ehunekoa emakumeena baino apur bat handiagoa dela.

Lan-tasari dagokionez, oreka are handiagoa da gizonen (% 44,6) eta emakumeen (% 44,4) artean.

Hala ere, langabezia-tasa handiagoa da gizonentzat (% 21) emakumeentzat baino (% 15,3).

## 2.2. UGALTZE-LANA

### 2.2.1 Etxeko ekoizpena eta BPGd-rekin duen erlazioa

#### **KSEn sartuta ez dagoen etxeko ekoizpenaren balioespina (milaka), aldi, lurralde, funtzio eta sexuaren arabera. 2008**

|                            | <b>Gizona</b> | <b>Emakumea</b> |
|----------------------------|---------------|-----------------|
| Euskal Autonomia Erkidegoa |               |                 |
| Etxeko ekoizpena, guztira  | 5.416.837     | 13.879.358      |

Iturria: EUSTAT

Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko ekoizpenaren balioa 19.296 milioi eurokoa izan zen 2008an, eta horrek esan nahi du urte horretako Barne Produktu Gordinarekin (BPGd) % 28,40 izan zela. Azpimarratzekoa da etxeko ekoizpenak BPGd-an duen partaidetzaren ehunekoa gero eta txikiagoa dela, % 47,5koa izan baitzen 1993an, eta % 28,40koa 2008an.



### **2.2.2 Etxeko lanetarako langileren bat duten familiak**

EAEko 105.000 familiek lana ematen diete Euskadin dauden ia 90.000 etxe-langileri.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2011. urtean etxeko lanari buruz egindako azterlana (oharra: prentsan argitaratutako datuak, oraindik ez da azterlana argitaratu).

### **2.2.3 Beren kargu 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kopurua**

2008ko dataz guraso bakarreko 65.826 familia zeuden EAEn, hau da, familia guztien % 8,3. Horrelako familia gehienetan emakumeak dira gurasoak, kasuen % 80tan emakumea da erreferentziazko pertsona.

Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kopurua 26.246koa da, hau da, guraso bakarreko etxeen % 40 eta EAEko etxeen % 3.

### **2.2.4 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eskatutako lanaldi-laburtzeen kopurua**

2009an guztira 38.131 lanaldi-laburtze eskatu ziren 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, 2008an baino gehiago.

Gizonek eskatutako lanaldi-laburtzeak eskaera guztien % 6,28 dira.

Ia hamarkada batez familia-politika uztartzeko lana sustatu eta neurriak ezarri ondoren, eta uztartze-neurrietan duten partaidetza handitzeko asmoz uztartzeari buruzko aurreko dekretuan gizonenganako diskriminazio positiboa egon arren, neurri hauen arazo handietako bat emakumeen nagusitasuna dela ikusi dugu. Horrek ondorio gaiztoak sor ditzake, eta benetan sortzen dabil, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bidean. Erronka, beraz, uztartzeko neurri horiek gizonek ere hartzea sustatzea izango da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila



### **2.2.5 Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziak**

2009an guztira 7.669 eszedentzia eskatu ziren 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, 2008an baino ia 3.000 eskaera gehiago.

Gizonen eskaerak eszedentzia-eskaera guztien % 3 baino ez dira.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

### **2.2.6 Aitona-amonen esku uzten den adingabeen zaintza**

13 urte baino gutxiagoko umeak dituzten 10 etxetik ia 2k (% 19,40) aitona-amonak hartu ohi ditu seme-alabak zaintzeko. Noizean behin aitona-amonengana jotzen duten pertsonen ehunekoa batuta, % 37 izango dira adingabeak zaintzeko laguntza hori eskatzen duten etxeak. Bilobak zaintzeko erabiltzen den ohiko batezbesteko denbora ia 4 ordu eta erdikoa da.

### **2.2.7 13 urtetik beherako adingabeen zaintza etxe-zerbitzuaren bitartez**

13 urte baino gutxiagoko umeak dituzten etxeen % 12,10ak etxe-zerbitzua erabiltzen du umeak zaintzeko, eta egunean 5 ordu inguru hartzen da horretarako batez beste. Umeak zaintzeko etxe-zerbitzuaren hileko batezbesteko kostua 400 €-koa da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

## **2.3. POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA**

### **2.3.1 Pobreziaren banaketa eta pobrezia-arriskua**

| <b>Pobreziaren banaketa eta pobrezia-arriskua, sexuka, banakako diru-sarreraren arabera</b> |                   |      |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|------|
|                                                                                             | Pobrezia-arriskua |      |
|                                                                                             | Banaketa          | Tasa |
| Emakumeak                                                                                   | 82,9              | 47,1 |
| Gizonak                                                                                     | 17,1              | 10,7 |

Iturria: Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta. 2008



Inkestako datuen arabera, pobrezia eragin handiagoa du emakumeengan gizonengan baino. Pobrezia-arriskuan dauden pertsonen % 82,9, hau da bakarrik bizi ahal izateko diru-sarrera nahikorik gabe, emakumezkoak dira. Txostenean azaldutakoaren arabera, pobrezia-arriskuaren ehunekoa 4 aldiz handiagoa da emakumeengan gizonengan baino.

Horrela bada, pobrezia-arriskua nabarmenagoa da pertsona nagusia emakumezkoa den kasuetan, hau da, beharrian oinarritzkoenei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez dituzten etxeetan. Egoera horretan daude pertsona nagusia emakumea den etxeen % 8,2, eta pertsona nagusia gizona den etxeen % 3,3. Pobreziaren beste adierazle bat ongizate-gabeziaren arriskua da, hau da: oinarritzko beharriazko aurre egiteko diru-sarrera nahikoak dituzten baina gutxieneko ongizate-mailak mantentzeko beharrezko gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez duten etxeak. Egoera horretan daude pertsona nagusia emakumea den etxeen % 28,1, eta aldiz ehunekoa txikiagoa da pertsona nagusia gizona den etxeetan, % 12koa, hain zuzen ere.

Ikuskerak izeneko azterlan baten arabera, gizonak eta emakumeak berdin aipatzen dituzte arazo pertsonal garrantzitsuenen artean lan-merkatuarekin zerikusia dutenak, arazo ekonomikoak eta etxebizitza.

### **2.3.2 Pobrezia-arriskuen eta ongizate-gabeziaren egoeren eragina, sexuaren arabera**

| <b>Pobrezia-arriskuen eta ongizate-gabeziaren egoeren eragina, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleak (datuak ehunekotan)</b> |                  |            |                |            |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------|------------|----------------|------------|
|                                                                                                                                                                        | <b>Emakumeak</b> |            | <b>Gizonak</b> |            |
|                                                                                                                                                                        | <b>H %</b>       | <b>B %</b> | <b>H %</b>     | <b>B %</b> |
| Pobrezia                                                                                                                                                               | 32,0             | 8,2        | 68,0           | 3,3        |
| Ongizate-gabezia                                                                                                                                                       | 31,0             | 28,1       | 69,0           | 12,0       |
| Ongizate egoeran                                                                                                                                                       | 13,5             | 71,9       | 86,5           | 88,0       |

Iturria: Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta. 2008

Pobrezia-arriskuaren eragina handiagoa da pertsona nagusia emakumezkoa den etxeetan, % 8,2koa baita pertsona nagusia emakumezkoa



den etxeetan eta % 3,3koa pertsona nagusia gizonetzkoa den etxeetan. Pertsona nagusia emakumea den etxeen % 28,1 ongizate-gabeziaren arriskuan dauden, eta pertsona nagusia gizona den etxeetan % 12koa da ehunekoa. Ongizate-egoeran dauden etxeen % 13,5ek bakarrik dute emakumezko bat etxeko pertsona nagusi gisa.

Etxe gehienetan gizonetzkoak dira pertsona nagusiak. Horrexegatik da, etxe guztiak kontuan hartuta, pobrezia-arriskuaren eta ongizate-gabeziaren eragina % 32koa bakarrik pertsona nagusia emakumezkoa den etxeetan.. Hala ere, gizarte-ongizate egoeran dauden etxeekin konparatuz gero, argi dago aurreko paragrafoan aipatutako eragina handiagoa dela. Horrela bada, ongizate-egoeran dauden etxeen % 13,5ek bakarrik dute emakumezko bat etxeko pertsona nagusi gisa.

### **2.3.3 Metatze- eta mantentze-pobreziaren arazoen banaketa eta eragina, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera**

Metatze-pobrezia epe luzean bizi-maila egokia mantentzeko beharrezko kontsumo-ondasun iraunkorrak eskuratzeko ezintasunarekin dago lotuta, eta ezegonkortasun-egoera diferentziala dakar horrelako ondasunen eskuragarritasunean. Horrenbestez, metatze-pobreziak pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren bizipen zuzenagoa dakar. Etxeko pertsona nagusia emakumezkoa den etxeetan metatze-pobreziaren eragina (1,4) handiagoa da pertsona nagusia gizonetzkoa den etxeetan baino (0,5). Hala ere, metatze-pobrezia duten etxe guztiak kontuan hartuta, % 66,7tan gizonetzkoa da etxeko pertsona nagusia.

| <b>Metatze- eta mantentze-pobreziaren arazoen banaketa eta eragina, etxeko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleak (ehunekotan)</b> |           |         |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|---------|
|                                                                                                                                                                      | Emakumeak | Gizonak |
| Banaketa                                                                                                                                                             | 33,3      | 66,7    |
| Eragina                                                                                                                                                              | 1,4       | 0,5     |

Iturria: Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta. 2008

Metatze-pobrezia duten familia gehienak bikoteak eta seme-alabek osatzen dituzte (% 51), baina bigarren lekuan daude, % 33ko ehunekoarekin, guraso bakarra emakumea duten familiak, oro har ez dela oso zabalduta dagoen familia-taldea. Metatze-pobreziaren eragin handiena duen familia-mota amak seme-alabekin dira, etxe horien guztizkoaren % 3,2, eta horien atzetik daude bakarrik bizi diren gizonak.

#### **2.3.4 Pobrezia-arazoen banaketa eta eragina, familia-talde motaren arabera**

| <b>Pobrezia-arriskuaren eta ongizate-gabeziaren egoeren eragina, familia-talde motaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleak. (Datuak ehunekotan)</b> |          |                  |                  |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|------------------|------------------|
| Familia-talde mota                                                                                                                                          | Pobrezia | Ongizate-gabezia | Ongizate egoeran |
| Bakarrik dauden pertsonak                                                                                                                                   | 7,9      | 34,0             | 66,0             |
| Bakarrik dauden gizonak                                                                                                                                     | 7,3      | 19,7             | 80,3             |
| Bakarrik dauden emakumeak                                                                                                                                   | 8,2      | 41,3             | 58,7             |
| Seme-alabarik gabeko bikotea                                                                                                                                | 3,3      | 12,9             | 87,1             |
| Seme-alabak dituen bikotea                                                                                                                                  | 2,8      | 11,0             | 89,0             |
| Guraso bakarreko familiak                                                                                                                                   | 11,9     | 24,9             | 75,1             |
| Seme-alabak dituen aita                                                                                                                                     | 16,5     | 21,1             | 78,9             |
| Seme-alabak dituen ama                                                                                                                                      | 10,8     | 25,7             | 74,3             |
| Familia-talde zabalduak                                                                                                                                     | 4,4      | 11,3             | 88,7             |
| Guztira                                                                                                                                                     | 4,1      | 14,6             | 85,4             |

Iturria: Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta. 2008

Emakume bat bakarrik bizi den etxeen ia % 50 pobrezia-arriskuaren egoeran (% 8,2) edo ongizate-gabeziaren egoeran (% 41,3) daude. Ongizate-gabeziaren arriskuaren eragina gizon bat bakarrik bizi den etxeetan emakumeenaren erdia baino gutxiagoko da (% 19,7). Ezberdintasunak ez dira hain handiak seme-alabak dituzten aita edo ama batek eratutako familietan. Gauzak horrela, pobrezia-arriskuaren eragina handiagoa da seme-alabak dituzten aiten etxeetan seme-alabak dituzten amen etxeetan baino. Hala ere, oinarritzko beharrianetarako nahikoa duten baina gutxieneko ongizate-mailak



mantentzeko beharrezko gastuetarako nahikoa ez duten etxeen kasuan, guraso bakarra emakumea duten familiengan da eragina handiena.

### 3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

#### 3.1. HEZKUNTZA-BALIABIDEAK

Nekazaritza-prestakuntzaren eremuan eta 2010eko ZIFRAK txostenetik ateratako datuen arabera, 2008/2009 ikasturtean nekazaritza-jardueren erdi-mailako lanbide-heziketan matrikulatu ziren ikasleen artean, % 28,9koa izan zen emakumeen matrikulazioaren ehunekoa. Nekazaritza-jardueren goi-mailako lanbide-heziketaren kasuan, % 26koa izan zen emakumeen matrikulazioa. Beraz, datu horiek adierazten dute emakumeak oraindik gutxiengoa direla nekazaritza-ikasketetan, baliteke “gizonen” lanarekin lotzen jarraitzen delako.

Euskaltegietan matrikulatutako ikasleei dagokienez, adina eta sexua kontuan hartuta, adin-tarte guztietan handiagoa da matrikulatutako emakumeen ehunekoa gizonena baino, eta 65 urte baino gehiagoko ikasleengan daude ehuneko parekoenak (49-51). Oro har esan daiteke matrikulatutako 4 pertsonatik ia 3 emakumezkoak direla.

Iturria: HABE



## 3.2. OSASUN-BALIABIDEAK

**3.2.1 Nola hautematen den osasuna EAEn, adinaren eta sexuaren arabera****Nola hautematen den osasuna EAEn, adinaren eta sexuaren arabera. 2002-2007**

|                      | 2002    |           |         | 2007    |           |         |
|----------------------|---------|-----------|---------|---------|-----------|---------|
|                      | Guztira | Emakumeak | Gizonak | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
| <b>Bikaina:</b>      |         |           |         |         |           |         |
| Guztira              | 6,8     | 6,3       | 7,4     | 6,7     | 5,5       | 8,0     |
| 16-24                | 13,7    | 12,2      | 15,1    | 17,6    | 11,6      | 23,3    |
| 25-44                | 8,3     | 8,0       | 8,6     | 8,7     | 7,8       | 9,6     |
| 45-64                | 3,5     | 3,3       | 3,7     | 3,5     | 3,4       | 3,7     |
| 65 eta<br>gehiago    | 4,0     | 4,0       | 3,9     | 2,2     | 2,3       | 2,1     |
| <b>Oso ona:</b>      |         |           |         |         |           |         |
| Guztira              | 23,6    | 22,4      | 24,9    | 22,8    | 21,6      | 24,1    |
| 16-24                | 38,9    | 35,5      | 42,1    | 39,1    | 39,3      | 39,0    |
| 25-44                | 30,4    | 29,8      | 31,1    | 31,9    | 30,9      | 32,9    |
| 45-64                | 15,7    | 16,1      | 15,3    | 15,2    | 15,1      | 15,4    |
| 65 eta<br>gehiago    | 10,8    | 10,5      | 11,3    | 8,7     | 7,9       | 9,8     |
| <b>Ona:</b>          |         |           |         |         |           |         |
| Guztira              | 51,9    | 51,8      | 52,1    | 50,4    | 50,3      | 50,6    |
| 16-24                | 42,4    | 46,5      | 38,4    | 39,1    | 44,4      | 34,0    |
| 25-44                | 53,0    | 53,3      | 52,8    | 50,7    | 51,9      | 49,6    |
| 45-64                | 58,3    | 57,2      | 59,3    | 57,7    | 55,0      | 60,5    |
| 65 eta<br>gehiago    | 47,5    | 45,5      | 50,3    | 45,0    | 44,2      | 46,0    |
| <b>Hala-holakoa:</b> |         |           |         |         |           |         |
| Guztira              | 15,0    | 16,5      | 13,4    | 17,0    | 18,9      | 15,0    |
| 16-24                | 4,6     | 5,7       | 3,6     | 3,7     | 4,7       | 2,7     |
| 25-44                | 7,6     | 8,2       | 7,0     | 7,8     | 8,4       | 7,2     |
| 45-64                | 19,9    | 21,1      | 18,6    | 20,6    | 23,4      | 17,7    |
| 65 eta<br>gehiago    | 29,8    | 30,8      | 28,4    | 35,8    | 35,7      | 35,9    |

**Txarra:**

|                   |     |     |     |     |     |     |
|-------------------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| Guztira           | 2,6 | 3,0 | 2,2 | 3,0 | 3,7 | 2,3 |
| 16-24             | 0,5 | 0,1 | 0,8 | 0,5 | 0,0 | 1,0 |
| 25-44             | 0,6 | 0,8 | 0,5 | 0,8 | 1,1 | 0,6 |
| 45-64             | 2,6 | 2,2 | 3,1 | 3,0 | 3,2 | 2,8 |
| 65 eta<br>gehiago | 7,9 | 9,2 | 6,0 | 8,4 | 9,9 | 6,2 |

Iturria: EUSTAT. Osasun-egoera

EAE n bizi diren pertsonen, oro har, hautemate positiboa dute euren osasunari buruz. Horri dagokionez, sexu bien artean ez dago ezberdintasun garrantzitsurik, nahiz eta gizonen adierazleak pixka bat handiagoak diren erantzun positiboenetan. Nolanahi ere, azken urteetako joera orokorra da hautematea gero eta positiboagoa dela sexu bietan. 2007an EAEko biztanleen erdiak baino gehiagok uste zuen bere osasuna ona edo oso ona zela, baina hautemate hori gero eta txikiagoa zen sexu bietan urteak aurrera joan ahala. 45 urtetik aurrera, hala-holako osasuna dutela dioten pertsonen ehunekoa nabarmen hazten da, bai gizonengan eta baita emakumeengan ere. Gero eta urte gehiago izan, osasunari buruzko hautemate negatiboa ere gero eta handiagoa da sexu bietan. Hala ere, 65 urte baino gehiagoko emakumeek adin bereko gizonen baino hautemate negatiboagoa dute euren osasunari buruz.

**3.2.2 Alta eman zaien gaixiak, diagnostikoaren eta sexuaren arabera****Alta eman zaien gaixiak eta 1.000 biztanleko tasa, behin betiko diagnostikoaren eta sexuaren arabera. 2008.**

|                                                       | Guztira |                               | Emakumeak |                               | Gizonak |                               |
|-------------------------------------------------------|---------|-------------------------------|-----------|-------------------------------|---------|-------------------------------|
|                                                       | Altak   | Altak<br>/1.000<br>biztanleko | Altak     | Altak<br>/1.000<br>biztanleko | Altak   | Altak<br>/1.000<br>biztanleko |
| Guztira                                               | 316.857 | 146,7                         | 163.758   | 148,2                         | 153.099 | 145,2                         |
| Gaixotasun infektzioak                                | 3.252   | 1,5                           | 1.335     | 1,2                           | 1.917   | 1,8                           |
| Tumoreak                                              | 27.611  | 12,8                          | 13.082    | 11,8                          | 14.529  | 13,8                          |
| Gaixotasun endokrino eta<br>metabolikoak              | 4.516   | 2,1                           | 2.570     | 2,3                           | 1.946   | 1,8                           |
| Odolaren gaixotasunak                                 | 3.540   | 1,6                           | 1.879     | 1,7                           | 1.661   | 1,6                           |
| Buruko gaixotasunak                                   | 5.264   | 2,4                           | 2.441     | 2,2                           | 2.823   | 2,7                           |
| Nerbio-sistemaren zentzumen-<br>organoen gaixotasunak | 35.968  | 16,7                          | 20.940    | 19,0                          | 15.028  | 14,2                          |



|                                                        |        |      |        |      |        |      |
|--------------------------------------------------------|--------|------|--------|------|--------|------|
| Zirkulazio-aparatuaren gaixotasunak                    | 37.819 | 17,5 | 16.138 | 14,6 | 21.681 | 20,6 |
| Arnas gaixotasunak                                     | 28.625 | 13,3 | 11.698 | 10,6 | 16.927 | 16,1 |
| Digestio-gaixotasunak                                  | 35.325 | 16,4 | 14.594 | 13,2 | 20.731 | 19,7 |
| Aparatu genitourinarioaren gaixotasunak                | 18.893 | 8,7  | 10.659 | 9,6  | 8.234  | 7,8  |
| Haurdunaldia eta erditzea                              | 26.436 | 23,9 | 26.436 | 23,9 | -      | -    |
| Larruazaleko eta larruazalpeko gaix.                   | 5.792  | 2,7  | 2.535  | 2,3  | 3.257  | 3,1  |
| Gaixotasun osteomuskularrak eta lokomozio-gaixotasunak | 29.031 | 13,4 | 14.768 | 13,4 | 14.263 | 13,5 |
| Sortzetiko anomaliak                                   | 2.596  | 1,2  | 1.221  | 1,1  | 1.375  | 1,3  |
| Jaiotza-inguruko anomaliak                             | 2.106  | 1,0  | 932    | 0,8  | 1.174  | 1,1  |
| Gaizki definitutako egoera morbidoak                   | 14.847 | 6,9  | 6.623  | 6,0  | 8.224  | 7,8  |
| Lesioak eta pozoidurak                                 | 22.235 | 10,3 | 9.370  | 8,5  | 12.865 | 12,2 |
| V kodeak                                               | 13.001 | 6,0  | 6.537  | 5,9  | 6.464  | 6,1  |

Iturria: Osasun Saila. Ospitaleetako erikortasunaren estatistika

Erantsitako taula aztertuta sexuen artean dauden zenbait ezberdintasun nabarmendu behar dira. Emakumeen kasuan, ospitaleratzea eragiten duen diagnosi ohikoena haurdunaldia eta erditzea da, EAEko emakumeen ospitaleratzeen % 23,9ko tasa biltzen dela bertan. Emakumeek beste diagnosi batzuk ere dituzte, baina neurri txikiagoan eta gizonen antzeko tasekin. Emakumeen ospitalizazio-prozesuek beste gaixotasun batzuk ere izaten dituzte arrazoi eta behin betiko diagnostiko, esaterako zirkulazio-aparatuarekin, nerbio-sistemearekin eta zentzumenekin zerikusia dutenak, edo digestio-gaixotasunak eta, neurri txikiago batean, gaixotasun osteomuskularrak eta lokomozio-gaixotasunak, tumoreak eta arnas gaixotasunak. Gizonen kasuan, diagnosi ohikoena zirkulazio-aparatuaren gaixotasunek eta digestio-gaixotasunek ematen diete, 20,6 eta 19,7ko tasekin, hurrenez hurren. Bestalde, gizonen diagnosi ohikoenen artean nabarmentzekoak dira arnas gaixotasunak, nerbio-sistemaren gaixotasunak, gaixotasun osteomuskularrak eta lokomozio-gaixotasunak, tumoreak eta lesio eta pozoidurak.

### **3.2.3 Biztanleriaren banaketa, mediku-kontsulta kopuruaren arabera, sexuka eta adinka**

**Biztanleriaren banaketa, mediku-kontsulta kopuruaren arabera, sexuka eta adinka.**



|                   | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|-------------------|-----------|---------|
| <b>0-14 urte</b>  |           |         |
| Bat ere ez        | 11,5      | 10,5    |
| 1 edo 2           | 42,9      | 41,2    |
| 3-9               | 36,0      | 38,9    |
| 10 baino gehiago  | 9,6       | 9,4     |
| Guztira           | 133.673   | 140.567 |
| <b>15-24 urte</b> |           |         |
| Bat ere ez        | 26,7      | 28,0    |
| 1 edo 2           | 45,0      | 51,5    |
| 3-9               | 25,3      | 17,2    |
| 10 baino gehiago  | 3,0       | 3,3     |
| Guztira           | 106.027   | 110.818 |
| <b>25-44 urte</b> |           |         |
| Bat ere ez        | 15,1      | 24,4    |
| 1 edo 2           | 43,8      | 49,5    |
| 3-9               | 32,3      | 20,4    |
| 10 baino gehiago  | 8,9       | 5,7     |
| Guztira           | 341.019   | 354.459 |
| <b>45-64 urte</b> |           |         |
| Bat ere ez        | 9,0       | 14,2    |
| 1 edo 2           | 37,5      | 44,3    |
| 3-9               | 40,3      | 31,3    |
| 10 baino gehiago  | 13,2      | 10,2    |
| Guztira           | 285.993   | 276.724 |
| <b>≥ 65</b>       |           |         |
| Bat ere ez        | 4,9       | 6,1     |
| 1 edo 2           | 24,9      | 24,2    |
| 3-9               | 50,8      | 49,0    |
| 10 baino gehiago  | 19,3      | 20,7    |
| Guztira           | 222.389   | 156.504 |

Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. Osasunari buruzko inkesta, 2007

Osasun eta Kontsumo Sailak osasunari buruzko egindako azken inkestaren arabera, tradizioz emakumeek sarriago erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak. Emakumeek gehiago erabiltzen dituzte batez ere osasun-zentroko edo anbulatorioko kontsultetan, baina ospitaleak erabili eta ospitalean egoteari dagokionez, gutxiago erabiltzen dituzte, gizonak baino gutxiago. Oro har, egiaztatu egin da emakumeak urtean gehiago joaten direla medikuaren kontsultara. Osasunari buruzko inkestan azaldutako datuen arabera, gizonak batezbestekoa baino handiagoa diren adierazleak dituzte “kontsulta bat ere ez” kategorian, batez ere 25 eta 64 urte bitarteko adin-tarteetan. Ezberdintasunak



gero eta txikiagoak dira adinak aurrera egin ahala, eta batez ere 65 urtetik aurrera maiztasun-adierazleak antzekoak dira gizon eta emakumeen artean.

### **3.2.4 EAEn egindako Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren (HBE) kopurua**

#### **Haurdunaldiaren Borondatezko Etendura (HBE) izan duten EAEn bizi diren emakumeei buruzko datuak. 2008.**

|                                         | Emakumeak | %    |
|-----------------------------------------|-----------|------|
| <b>Aurretik egindako HBE kop.</b>       |           |      |
| Bat ere ez                              | 2.220     | 74,1 |
| Bat                                     | 565       | 18,9 |
| Bi                                      | 149       | 5,0  |
| Hiru edo gehiago                        | 62        | 1,9  |
| <b>Haurdunaldiko asteak</b>             |           |      |
| <=8                                     | 1.988     | 66,4 |
| 9-12                                    | 759       | 25,3 |
| 13-16                                   | 69        | 2,3  |
| 17-20                                   | 112       | 3,7  |
| >=21                                    | 68        | 2,3  |
| <b>Eteteko arrazoia</b>                 |           |      |
| Amaren osasunerako arriskua             | 2.807     | 93,7 |
| Fetuarentzako arriskua                  | 187       | 6,2  |
| Amaren osasuna + fetuarentzako arriskua | 2         | 0,1  |
| <b>Ebakuntza-teknika</b>                |           |      |
| Xurgapena                               | 1.424     | 47,5 |
| Dilatazioa                              | 84        | 2,8  |
| Legratua                                | 412       | 13,8 |
| Ru-486                                  | 1.009     | 33,7 |
| Zain barneko injekzioa                  | 11        | 0,4  |
| Umetoki barneko injekzioa               | 56        | 1,8  |
| Bestelakoak                             | 2.220     | 74,1 |

Iturria: Erregistroaren txostena: Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurak EAEn

HBE izan duten emakumeen erdia- baino gehiagok aurretiaz ez zuten osasun-zentro edo -zerbitzuren batera jo metodo antisorgailuak erabili edo kontrolatzeko. Nerabeen kasuan, % 86koa da ehunekoa, aurreko urteetan erregistratutako tasaren antzekoa, eta 40 eta 44 urte arteko emakumeek dute ehunekorik txikiena (% 56,7).



## 3.3. KULTURA- ETA KIROL-BALIABIDEAK

**3.3.1 Teknologia berriak**

EUSTATen datuen arabera, Interneten erabiltzaileen artean dagoen generoen arteko desoreka gero eta handiagoa da 2011. urtean.

Generoen arteko desoreka ehuneko 7,7 puntukoa zen 2010. urtean, eta 8 puntukoa izan da 2011ko lehenengo hiruhilekoan.

Iturria: Informazio gizartearen inkesta/Euskal Autonomia Erkidegoko familiak, 2011

**3.3.2 Normalean kultura-jardueraren bat egiten duten emakumeen eta gizonen ehunekoa****Normalean kultura-jardueraren bat egiten duten emakumeen eta gizonen ehunekoa**

|                                                                      | Gizonak | Emakumeak |                |
|----------------------------------------------------------------------|---------|-----------|----------------|
| <b>Kultura-jarduera</b>                                              | %       | %         | <b>Guztira</b> |
| Normalean aisia-liburuak irakurtzen dituzten pertsonak               | 42,7    | 48,5      | 45,7           |
| Normalean aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak                  | 38,6    | 40,4      | 39,6           |
| Normalean egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak                   | 73,1    | 60,7      | 66,7           |
| Normalean liburutegietara joaten diren pertsonak                     | 16,6    | 18,3      | 17,5           |
| Normalean museoetara joaten diren pertsonak                          | 18,3    | 17,9      | 18,1           |
| Normalean arte-galerietara eta erakusketetara joaten diren pertsonak | 10,2    | 9,1       | 9,6            |
| Normalean musika entzuten duten pertsonak                            | 75,1    | 71,5      | 73,3           |
| Normalean musika erosten duten pertsonak                             | 33      | 27,7      | 30,3           |



|                                                                         |         |         |           |
|-------------------------------------------------------------------------|---------|---------|-----------|
| Normalean musika-kontzertuetara joaten diren pertsonak                  | 18,3    | 15      | 16,6      |
| Normalean zinemara joaten diren pertsonak                               | 42,2    | 37,9    | 40        |
| Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak             | 67,4    | 58,8    | 63        |
| Normalean antzerkira joaten diren pertsonak                             | 7,3     | 10,9    | 9,2       |
| Normalean lirikara joaten diren pertsonak                               | 3,6     | 4,7     | 3,6       |
| Normalean dantzetara joaten diren pertsonak                             | 2,7     | 4,6     | 3,6       |
| Normalean bertsolaritza-ikuskizunetara joaten diren pertsona elebidunak | 9,7     | 7,8     | 8,7       |
| GUZTIZKO abs.                                                           | 908.772 | 962.082 | 1.870.854 |

#### Iturria: Euskal Kulturaren Behatokia

Oro har, kultura-jarduera guztiek dute sexuaren araberako banaketa nahiko orekatua. Irakurketari dagokionez, normalean aisia-liburuak eta aldizkariak irakurtzen dituzten emakumeak gehiago dira, baina alderantziz gertatzen da egunkariak irakurtzeko orduan, gizonak emakumeak baino % 13 gehiago baitira. Musika-kulturari dagokionez, banaketa orekatua den arren, gizonen proportzioa handiagoa da ikuspegi guztietan, bai musika entzun eta erostean bai eta kontzertuetara joatean ere.

Emakumeen proportzioa nabarmen handiagoa da antzerkira, lirikara eta dantzetara joateko jardueretan, bereziki dantza-jardueretan, bertan nabaria dela generoen arteko desoreka.

#### 3.3.3. Kirola egitea

##### Kirolarenganako interes-maila, kirola egiten den ala ez kontuan izan gabe

|               | Gizona | Emakumea | GUZTIRA |
|---------------|--------|----------|---------|
|               | %      | %        | %       |
| <b>Handia</b> | 28,40  | 13       | 20,6    |



|                     |      |      |      |
|---------------------|------|------|------|
| <b>Nahikoa</b>      | 45,8 | 38,1 | 41,9 |
| <b>Txikia</b>       | 18,9 | 30,3 | 24,7 |
| <b>Interesik ez</b> | 6,7  | 18,6 | 12,7 |

Iturria: Kirol Ohiturak Espainian IV (2010eko apirila)

Emakumeen % 50 baino gehiagok interes txikia du edo ez du interesik kirolarenganako, eta ehuneko hori % 25,6koa da gizonen artean. Bestalde, gizonen % 74,2k kirol asko edo nahiko egiten du, eta emakumeen ehuneko % 51,1koa da.

| <b>Kirola egiteko maila, sexuaren eta adinaren arabera</b> |               |                |                |
|------------------------------------------------------------|---------------|----------------|----------------|
|                                                            | <b>Gizona</b> | <b>Emakume</b> | <b>GUZTIRA</b> |
|                                                            | <b>a</b>      |                |                |
|                                                            | <b>%</b>      | <b>%</b>       | <b>%</b>       |
| <b>Bat egiten du</b>                                       | 25,2          | 20,3           | 22,7           |
| <b>Hainbat egiten ditu</b>                                 | 23,8          | 10,8           | 17,2           |
| <b>Ez du bat ere egiten</b>                                | 50,9          | 68,7           | 59,9           |

Iturria: Kirol Ohiturak Espainian IV (2010eko apirila)

Gizonen artean emakumeen artean baino handiagoa da hainbat kirol egiten dituztenen kopurua. Aldiz, kirolik egiten ez duten emakumeak kirolik egiten ez duten gizonak baino gehiago dira. Ehuneko parekoenak kirol bakarra egiten dutenen artean daude.

| <b>Kirola egiteko maila, sexuaren eta adinaren arabera</b> |                |                  |
|------------------------------------------------------------|----------------|------------------|
| <b>Adina</b>                                               | <b>Gizonak</b> | <b>Emakumeak</b> |
|                                                            | <b>%</b>       | <b>%</b>         |
| 15-25                                                      | 74             | 56               |
| 26-35                                                      | 65             | 45               |
| 36-49                                                      | 59             | 45               |
| 50-64                                                      | 57             | 25               |
| 65 edo gehiago                                             | 58             | 33               |
| <i>Guztira</i>                                             | 65             | 45               |

Iturria: Kirol Ohiturei buruzko Inkesta EAEn (2009ko urtarrila)



Ezberdintasun esanguratsuak ikusi dira gizonek eta emakumeek kirola egiteko mailan. Oro har, gizonek emakumeek baino kirol gehiago egiten dute.

Gizonek azken hilabeteetan egindako kirolaren maila % 50 baino gehiagokoa da adin guztietan. Hala ere, emakumeen kasuan, 15-25 urte bitarteko tartean bakarrik gainditzen da hilean % 50eko kirol-maila

Gainera, 25 eta 35 urte bitarteko tartean kirola egiteari uzten zaiola ikusi da. Era berean, emakumeen kasuan ere 25 urtetik 35 urtera bitarteko tartean kirola egiteari uzten zaiola ikusi da.

36 urtetik aurrera, gizonek ia aldaketarik gabe jarraitzen dute kirola egiten. Hala ere, emakumeen artean kirola egiteko mailak nabarmen egiten du behera 50 urtetik aurrera.

Kirol ohiturei buruzko azterlanak (2010eko apirila) dio emakumeek kirola egiteko aipatzen dituzten arrazoiak batez ere “ariketa fisikoa egitea” eta “osasun-arrazoiak” direla. Aldiz, gizonek kirola egiteko dituzten arrazoen artean aipatuena dira “ariketa fisikoa egitea” (nahiz eta emakumeek baino proportzio txikiagoan) eta “ondo pasatzea eta denbora pasatzea” (oso nabaria da emakumeekin alderatuz dagoen ezberdintasuna).

Gainera, kirola egiteari uzteko arrazoi nagusia, bai gizonengan eta bai emakumeengan ere, lanaren edo ikasketen ondoriozko nekea eta osasun-arazoak dira. Aipatzekoa da kirola egiteari instalazioaren ordutegiarekin bateraezintasunak dituztelako, denborarik ez dutelako, eta gogorik ez dutelako eta nagi daudelako uzten dioten emakumeen ehunekoa handiagoa dela.

Bitxia bada ere, emakumeek alferkeria eta kirola egiteko gogorik eza aipatzen dituzte ariketa fisikoa ez egiteko arrazoi nagusi gisa, eta gizonek lanaren ondoriozko nekea (nahiz eta, inkesta beraren arabera, emakumeak izan egunean denbora libre gutxiago dutenak).

#### **3.3.4 Aisia**

Mutil gazteen ehunekoa neska gazteena baino handiagoa da aisia-jardueren artean honakoak aipatzean: musika entzutea, kirola egitea, etxean ordenagailuarekin entretenitzea, diskoteka eta dantza-aretoetara joatea, bideo-



kontsolekin jolastea, mendira joatea, litroak edatea, kirol-ikuskizunetara joatea, joko-aretoetara joatea, cyber-era joatea.

Ematen du mutilen artean, or har, kirol-jarduerak, informatikarekin zerikusia dutenak eta jaiarekin lotutako soziabilitatea dutenak nagusitzen direla.

Neska gazteen ehunekoa mutil gazteena baino handiagoa da aisia-jardueren artean honakoak aipatzean: lagunekin egotea, bikotekidearekin egotea, telebista, bideoak eta DVDak ikustea, taberna eta kafetegietara joatea, deskantsatu eta ezer ez egitea, familiarekin egotea, paseatu edo kalean egotea, irakurtzea, ikuskizunetara joatea, telefonoz hitz egitea edo SMSak bidaltzea, dendetan edo erosketetan aritzea, kultura-jarduera zehatzen bat egitea.

Nesken kasuan aipagarriak dira kultura-jarduera zehatzak, parekoen taldearekin, bikotekidearekin eta familiarekin lotutako soziabilitatea, ikus-entzunezkoen kontsumorako jarduerak, eta atsedenarekin lotutako beste jarduera lasaiago batzuk.

Elkarte- edo boluntariora-jarduerak egiteari dagokienez, ehunekoak parekoak dira.

Iturria: Euskal gazteria. Gazteen Euskal Behatokia.

#### 4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

##### 4.1 PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN

##### 4.2 PARTE-HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN

##### 4.1 PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN

#### **4.1.1 Eusko Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen presentziak izan duen bilakaera, legegintzaldika**


**Eusko Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen presentziak izan duen bilakaera, legegintzaldia (1980-2008)**

| Legegintzaldia | I    | II   | III  | IV   | V    | VI   | VII  | VIII | IX   |
|----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
|                | 1980 | 1984 | 1986 | 1990 | 1994 | 1998 | 2001 | 2005 | 2009 |
| Emakumeen %    | 6,7  | 10,7 | 13,3 | 20   | 24   | 29,3 | 37,3 | 53,3 | 45,3 |
| Gizonen %      | 93,3 | 89,3 | 86,7 | 80   | 76   | 70,7 | 62,7 | 46,7 | 54,7 |

Iturria: 2010eko zifrak

Emakumeek Eusko Legebiltzarrean duten presentziak etengabe egin izan du gora 2009. urtera arte, orduan behera egin zuela. Gertaera garrantzitsuetako bat 2005ean izan zen. Orduan lehenengoz jaso zen Eusko Legebiltzarrean aktan gizonetzko baino emakumezko legebiltzarkide gehiago. Arrazoietakoa bat, zalantzarik gabe, 2005eko martxoan *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea* onetsi izana izan zen.

**4.1.2 Eusko Legebiltzarrean osaera.**
**Emakumezko eta gizonetzko legebiltzarkideak, alderdi politiko eta sexu bakoitzeko**

|             | Guztira | Emakumeak      | Gizonak |
|-------------|---------|----------------|---------|
| Guztira     | 75      | 34 <b>45,3</b> | 41 54,7 |
| EAJ/PNV     | 30      | 16 <b>53,3</b> | 14 46,7 |
| PSE-EE/PSOE | 25      | 12 <b>48,0</b> | 13 52,0 |
| PP          | 13      | 5 <b>38,5</b>  | 8 61,5  |
| Aralar      | 4       | 1 <b>25,0</b>  | 3 75,0  |
| EA          | 1       | 0 <b>0,0</b>   | 1 100,0 |
| EB-B        | 1       | 0 <b>0,0</b>   | 1 100,0 |
| UPD         | 1       | 0 <b>0,0</b>   | 1 100,0 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza

Legegintzaldi honetan Eusko Legebiltzarrean dauden emakumeen presentzia % 45,33koa da, eta aurreko legegintzaldian % 53,3koa zen. PSE-EE eta EAJ alderdiek bakarrik betetzen dute parekotasun printzipioa, eta EAJ da Legebiltzarrean gizon baino emakume gehiago dituen talde bakarra. Azpimarratzekoa da EAK, EBk eta UPDk ez dutela emakumezko ordezkariarik Legebiltzarrean.



Aipagarria da, era berean, Eusko Legebiltzarreko burua emakumezkoa dela, aurreko legegintzaldian bezala.

#### **4.1.3 Hiru lurralde historikoetako batzar nagusien osaera**

| <b>Batzar Nagusien osaera, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera</b> |                  |                |
|----------------------------------------------------------------------------|------------------|----------------|
|                                                                            | <b>EMAKUMEAK</b> | <b>GIZONAK</b> |
| ARABA                                                                      | 24               | 27             |
| BIZKAIA                                                                    | 24               | 27             |
| GIPUZKOA                                                                   | 25               | 26             |
| GUZTIRA                                                                    | 73               | 80             |

Iturria: Bertan eginda, hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusien webguneetako datuak oinarri hartuta (Kontsultaren data: 2011ko iraila)

Gizonen eta emakumeen parekotasun printzipioa hiru foru-erakundeetan betetzen den arren, emakumezko batzarkideen kopurua batean ere ez da gizonezko batzarkideen kopurua baino handiagoa. Gipuzkoan bakarrik da emakumezkoa Foru Aldundiko presidentea.

#### **4.1.4 EAEko udalen osaera 2011n**

| <b>EAEko udalen osaera, sexuaren arabera</b> |                  |                |
|----------------------------------------------|------------------|----------------|
|                                              | <b>EMAKUMEAK</b> | <b>GIZONAK</b> |
| ALKATEAK                                     | 56 (% 22,40)     | 194 (% 77,60)  |
| ZINEGOTZIAK                                  | 964 (% 40,68)    | 1406 (% 59,32) |

Iturria: EUDEL. 2011ko hauteskundeak

Historian lehenengoz, mugetatik hurbil egon arren, EAEko udaletako zinegotzigoen osaerak parekotasun printzipioa betetzen du. Alkatetzekin ez da gauza bera gertatzen, desoreka handia baitago gizonen alde, alkateen % 77,06 gizonezkoak baitira.



2011ko maiatzaren 22ko azken hauteskundeetan, zerrenda guztien osaerak parekotasun zuzena zuen, ordezkaritza % 40. Hala ere, emakume gehienak leku zailetan zeuden, “leku ziurrak” izenekoetatik urrun.

#### 4.1.5 Emakumezko alkateak buru dituzten udalerriak eta biztanleak

| Emakumezko alkateak buru dituzten udalerriak eta biztanleak |            |             |           |             |                |             |                |             |
|-------------------------------------------------------------|------------|-------------|-----------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|
|                                                             | UDALERRIAK |             |           |             | BIZTANLEAK     |             |                |             |
|                                                             | 2007       |             | 2011      |             | 2007           |             | 2011           |             |
|                                                             | abs.       | %           | abs.      | %           | abs.           | %           | abs.           | %           |
| <b>EAE</b>                                                  | <b>50</b>  | <b>19,9</b> | <b>56</b> | <b>22,3</b> | <b>244.593</b> | <b>11,5</b> | <b>247.425</b> | <b>11,4</b> |
| Araba                                                       | 10         | 19,6        | 7         | 13,7        | 9.659          | 3,2         | 19.045         | 6,0         |
| Bizkaia                                                     | 18         | 16,1        | 25        | 22,3        | 88.590         | 7,8         | 138.845        | 12,0        |
| Gipuzkoa                                                    | 22         | 25,0        | 24        | 27,3        | 146.344        | 21,2        | 89.535         | 12,7        |

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saileko Estatistika Organoak eginda, EUDELen datuak oinarri hartuta.

Emakumezko alkatea duten udalerri gehienak txikiak dira. EAEn 56 emakumezko alkate daude, eta horietako 31 2.500 biztanle baino gutxiagoko udaletan dabilta. EAEko hiriburu batek ere ez du inoiz emakumezko alkaterik izan, eta 2011ko azken hauteskundeen ondoren ere ez dauka. EUSTATen azken erroldaren arabera handienak diren 10 udalerrietako batek ere ez du emakumezko alkaterik.

Alkate horien alderdi politikoei dagokienez, aipatzekoa da Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSE) eta Alderdi Popularrak (PP) ez dutela emakumezko alkaterik EAEn. Aldiz, emakumezko alkateen % 65,5 (35 guztira) Bildukoak dira, eta EAJk 16 emakumezko alkate ditu (guztizko kopuruaren % 28,57). Emakumezko gainerako alkateak, 5 guztira, talde independenteetakoak dira.

**4.1.6 Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak****Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera**

|                                    | Guztira<br>Abs. | Emakumeak |                | Gizonak |         |
|------------------------------------|-----------------|-----------|----------------|---------|---------|
|                                    |                 | Abs.      | %              | Abs.    | %       |
| Sailburuak                         | 10              | 5         | % <b>50</b>    | 5       | % 50    |
| Sailburuordeak / Idazkari nagusiak | 35              | 14        | % <b>40</b>    | 21      | % 60    |
| Zuzendariak                        | 124             | 55        | % <b>44,35</b> | 69      | % 55,65 |

Iturria: Bertan eginda, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) aztertu eta sailei galdetu ondoren (kontsultaren data: 2011ko iraila)

Eusko Jaurlaritzak 10 sail ditu gaur egun, eta 5 dira emakumezko sailburuak. Lehendakaritza saileko burua lehendakaria da. Eusko Jaurlaritzak 35 sailburuordetza eta idazkaritza nagusi ditu, eta % 40tan dira emakumezkoak buruak.

Eusko Jaurlaritzako sail gehienek parekotasun-printzipioa betetzen dute sailburuordetza eta idazkaritza nagusietako emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez. Kargu horietan gizonen presentzia emakumeena baino nabarmen handiagoa duen sail bakarra Lehendakaritza da, lau gizon eta emakume bat baitira. Herri Administrazio Sailean bakarrik da emakumezko sailburuordeen kopurua gizonezko sailburuordeena baino handiagoa, hiru emakume eta gizon bat baitira.

Zuzendaritzari dagokionez, emakume eta gizonen presentzia orekatua du gobernuak, nahiz eta gizonak gehiago izan: 124 zuzendari daude guztira, eta horietatik 69 gizonezkoak dira.

**4.1.7. Gizonen eta emakumeen partaidetza Toki Administrazioetako, Foru Administrazioetako eta Administrazio Orokorreko herritarren parte-hartzerako organoetan**



“Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak (2006)” izeneko txostenak dio “Parte-hartze esperientzien” txostenak erakutsi duenez, ikertutako kasuen erdian ez dago inolako daturik emakumeen presentziaren inguruan (Ingurumen atalari dagokio). Hala ere, azterketaren emaitzekin gutxi gorabeherako irudia atera daiteke eta, batez ere, deigarria da herritarren parte-hartzean emakumeek eta genero-ikuspegiak lekua izatea beharrezkoa dela. Izan ere, aztertutako esperientzien laurdenean bakarrik da % 50 baino handiagoa emakumeen partaidetza, eta kasu bakar batean ere ez da % 75 baino altuagoa.

#### 4.2. PARTE-HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN

##### 4.2.1 Enpresa-elkarteak eta elkarte profesionalak

| <b>Hiru lurralde historikoetako elkargo profesionalak, sexuaren arabera bereizita</b> |         |           |         |         |         |
|---------------------------------------------------------------------------------------|---------|-----------|---------|---------|---------|
|                                                                                       | Guztira | Emakumeak |         | Gizonak |         |
|                                                                                       | Abs.    | Abs.      | %       | Abs.    | %       |
| ARABA                                                                                 | 28      | 6         | % 21,42 | 28      | % 78,58 |
| BIZKAIA                                                                               | 48      | 5         | % 10,41 | 48      | % 89,59 |
| GIPUZKOA                                                                              | 32      | 5         | % 15,62 | 32      | % 84,39 |

Iturria: Bertan eginda, Eusko Jaurlaritzaren Helbideen Gida oinarri hartuta (azken eguneratzea: 2011ko maiatza)

Elkargo profesionalak pertsonen interesak defendatzen dituzte, duten titulazioaren arabera. Guztira 108 elkargo daude, eta % 14,81etan bakarrik dira emakumezkoak burua. Bizkaia nabarmendu behar da, guztizko kopuruaren % 10,41 baino ez baitira emakumezkoak.

Aipatutako gidan aztertutako 19 enpresa-elkarteetatik 16tan (% 84,21) gizonezkoak dira buruak, eta 3tan bakarrik dira emakumezkoak elkarte horietako buru EAE guztian.

Gainera, merkataritza-ganberak, Bilboko Burtsa eta azokak ere aztertu dira, eta horietan guztietan (10) gizonezkoak dira buruak. Emakumeen eremu honetan duten presentzia erabat ezdeusa da.



#### **4.2.2 EAEko patronaletako buru diren emakume eta gizonen %, sexuaren arabera bereizita.**

Confebask, Cebek, Adegí eta Sea-ko presidentek gizonetzkoak dira, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkaritza % 0koa dela. Lau idazkaritza nagusiak aztertuta, Bizkaikoak bakarrik dauka emakume bat, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkaritza % 25ekoa dela.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Helbideen Gida

#### **4.2.3 EJSNko zerbitzu profesional eta enpresarialetan lanean diharduten langileak, lurralde historikoa**

Zerbitzu profesional eta enpresarialek, normalean enpresei emandako zerbitzuak deritzenek, 4.879 milioi euroko balio erantsi gordina sortu zuten 2009an, eta 119.616 enplegu zituen, EUSTATEk egindako datuen arabera.

Zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari emandako ekarpena balio erantsi gordinaren % 8,3koa izan zen, eta enpleguaren % 12,2 2009an.

#### **4.2.4 IBEX 35eko euskal enpresen Administrazio Kontseiluak**

IBEX 35 osatzen duten euskal enpresei dagokienez (BBVA, GAMESA eta IBERDROLA), datuek diote guztietan direla gizonetzkoak presidentek, eta Administrazio Kontseiluetako % 85 baino gehiago gizonetzkoak direla.

#### **4.2.5 EAEn ordezkaritza duten sindikatuetaiko afiliazioa**

##### **Sindikatu nagusietako Idazkaritza Nagusiak eta Batzorde Eragileak, sexuaren arabera. 2010.**

|      | Idazkari nagusia |         | Batzorde Eragilea |      |         |      | Guztira |
|------|------------------|---------|-------------------|------|---------|------|---------|
|      | Emakumeak        | Gizonak | Emakumeak         |      | Gizonak |      |         |
|      | Abs.             | Abs.    | Abs.              | %    | Abs.    | %    | Abs.    |
| ELA  | 0                | 1       | 4                 | 36,4 | 7       | 63,6 | 11      |
| LAB  | 1                | 0       | 6                 | 60,0 | 5       | 50,0 | 10      |
| UGT  | 0                | 1       | 3                 | 37,5 | 5       | 62,5 | 8       |
| CCOO | 0                | 1       | 7                 | 30,4 | 16      | 69,6 | 23      |

Iturria: 2010eko zifrak



Euskadin gehiengoa duten sindikatueta batzorde eragileen osieran ere gizonezkoak dira nagusi. LAB da gobernuan emakumeen presentzia orekatua duen sindikatu bakarra.

Nekazaritzako sindikatuen artean, EHNE Konfederazioa da zuzendaritza-organoen osieran parekotasun printzipioa betetzen duen bakarra, 3 emakume eta 3 gizon baititu.

#### 4.2.6 Finantza-erakundeak

Finantza-erakundeetan, erabaki-guneak ia erabat daude gizonezkoen esku. Hala, Euskadiko finantza-erakunde nagusiek gizonezko presidentek dituzte. Era berean, zuzendaritza-batzordeetan ere oso emakume gutxi dago. BBK erakundeak du emakume gehien zuzendaritzan, baina hala ere ez du parekotasun-printzipioa betetzen. Beste muturrean daude BBVA, Ipar Kutxa eta Banco Guipuzcoano: erakunde horietan, ez dago emakumerik zuzendaritza-organoetan, edo bakarra dago.

#### EAEn egoitza duten finantza-erakundeen presidentea eta zuzendaritza-kontseilua. 2010

|                   | Presidentea     |                   | Administrazio Kontseilua/Zuzendaritza Nagusia |      |         |       |                 |
|-------------------|-----------------|-------------------|-----------------------------------------------|------|---------|-------|-----------------|
|                   | Gizonak<br>abs. | Emakumeak<br>abs. | Emakumeak                                     |      | Gizonak |       | Guztira<br>abs. |
|                   |                 |                   | abs.                                          | %    | abs.    | %     |                 |
| KUTXA             | 1               | 0                 | 3                                             | 21,4 | 11      | 78,6  | 14              |
| BBK               | 1               | 0                 | 6                                             | 37,5 | 10      | 62,5  | 16              |
| Vital kutxa       | 1               | 0                 | 3                                             | 18,8 | 13      | 81,3  | 16              |
| Euskadiko Kutxa   | 1               | 0                 | 3                                             | 25,0 | 9       | 75,0  | 12              |
| Ipar Kutxa        | 1               | 0                 | 1                                             | 8,3  | 11      | 91,7  | 12              |
| BBVA              | 1               | 0                 | 0                                             | 0,0  | 15      | 100,0 | 15              |
| Banco Guipuzcoano | 1               | 0                 | 1                                             | 11,1 | 8       | 88,9  | 9               |

Fuente: 2010eko zifrak



#### **4.2.7 Ingurumen- eta lurraldearen antolamendu-arloetako batzorde eta kontseiluetan parte hartzen duten emakumeen ehunekoa**

“Emakume eta gizonen presentzia EAEko erabaki guneetan 2008” izeneko azterlanak honako datu hauek ematen dizkigu:

- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMEN BATZORDEA: 5 emakume, hau da, kide guztien % **27,8**. Batzordearen presidentea emakumezkoa da.
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMENERAKO AHOLKU KONTSEILUA: 11 emakume, hau da, kide guztien % **35,5**. Batzordearen presidentea emakumezkoa da.
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NATURA BABESTEKO AHOLKU KONTSEILUA-Naturzaintza: 3 emakume, hau da, kide guztien % **17,6**. Batzordearen presidentea emakumezkoa da.
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA: 4 emakume, hau da, kide guztien % **16,7**. Batzordearen presidentea emakumezkoa da.
- LURRALDE POLITIKAKO AHOLKU BATZORDEA: 5 emakume, hau da, kide guztien % **19,2**. Batzordearen presidentea emakumezkoa da.

#### **4.2.8 EAEko Landa Garapenerako Elkarteetako Gobernu Batzordeetan dauden emakumeen ehunekoa**

Landa-garapenerako elkarteei dagokienez, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako gobernu-batzordeetako partaidetzari buruzko datuek diote landa-garapenerako elkarteetan emakumeek duten presentzia oraindik urrun dagoela ordezkartza orekatua izatetik. Izan ere, batean bakarrik gainditzen da emakumeen presentziaren % 40, eta aztertu diren gainerako kasuetan batek ere ez du % 30 ere gainditzen.

Fuente: Ingurumen Sailak eginda, 2010.



#### **4.2.9 Arrantzaleen kofradietan eta arrantza-eremuko erabakiak hartzen diren bestelako arloetan parte hartzen duten emakumeen ehunekoa**

Arrantza-eremu gehiena gizonena da, eta ezberdintasun argia dago lan-motaren eta sexuaren arabera:

- Bizkaiko Arrantzaleen Federazioa: % 100 gizonak.
- Gipuzkoak Arrantzaleen Federazioa: % 100 gizonak.
- Ondarruko Goi Arrantzarako Ekoizleen Erakundea: % 87 gizonak eta % 13 emakumeak.
- Asociación Nacional de Atuneros Congeladores - ANABAC: % 60 emakumeak eta % 40 gizonak.
- Bakailao Arrantzako Ontzien Gipuzkoako Elkarteak - ARGIBA: % 100 gizonak.
- Nautika eta aisialdi arrantza elkarten federakuntza - FASNAPER: % 97 gizonak eta % 3 emakumeak.
- Euskadiko Kirol Portua - EKP: % 50 emakumeak eta % 50 gizonak.
- Euskadiko Arrain Salerosleen Federazioa - FECOPE: Pasaia elkartean (Gipuzkoa), % 83 gizonak eta % 17 emakumeak. Ondarroako elkartean, % 75 gizonak eta % 25 emakumeak.
- Ondarruko Neskatileen Elkarteak: % 100 emakumeak.
- Saregin eta Kai Neskatileen Euskadiko Elkarteak: % 100 emakumeak.
- Bermeoko Neskatilea eta Saregin Autonomoen Elkarteak: % 100 emakumeak.

Fuente: Ingurumen Sailak eginda. 2011

#### **4.2.10 Kirol-arloko organoetan dauden emakumeen eta gizonen ehunekoa**


**Kirol-arloko organoetan dauden gizonen eta emakumeen ehunekoa**

| Organoak                                 | Guz<br>tira | Gizonak   |             | Emakumeak |             |
|------------------------------------------|-------------|-----------|-------------|-----------|-------------|
|                                          |             | Abs.      | %           | Abs.      | %           |
| Kirolaren Euskal Kontseilua              | 34          | 24        | 70.6        | 10        | 29.4        |
| Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea | 13          | 8         | 61.5        | 5         | 38.5        |
| Kirol Justiziako Euskal Batzordea        | 7           | 4         | 57.2        | 3         | 42.8        |
| Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea | 14          | 8         | 57.2        | 6         | 42.8        |
| EAEko Kirol Federazioak                  | 50          | 49        | 98          | 1         | 2           |
|                                          | <b>118</b>  | <b>93</b> | <b>78.8</b> | <b>25</b> | <b>21.2</b> |

Fuente: Kirol Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza. 2009

Aipagarria da organoetan dauden gizonen ehunekoa (% 78,8) emakumeena (% 25) baino nahiko handiagoa dela.

Organoak berariaz aztertu gero, hirutan gizonen ehunekoa handiagoa da, eta ez dira legeak ezarritako ordezkariak orekatuaren ehunekoak betetzen. Aldiz, beste organo bitan ehunekoak gehiago hurbiltzen dira orekara.

#### **4.2.11 Parte-hartzea unibertsitateetan**

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetan (Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea) gizonezkoak dira zuzendariak. Hiru idazkaritza nagusietatik bitan emakumeak dira buruak. Bestalde, emakumeek zuzendaritza-kontseiluetan duten ordezkariak txikia da: % 2 Deustuko Unibertsitatean, heren bat Euskal Herriko Unibertsitatean, eta % 37 Mondragon Unibertsitatean.



## 5. ERANTZUKIDETASUNEZKO GIZARTE-ANTOLAKUNTZA

### 5.1. DENBORAREN ERABILERA

#### **5.1.1 Gizonek eta emakumeek etxeko lanak egiteko eta pertsonak zaintzeko egunean erabiltzen duten denbora, batez beste**

EUSTATEk egindako Denbora-aurrekontuen inkestan (2008) azaldutakoaren arabera, emakumeek batez beste 3 ordu eta 33 minutu ematen dute etxeko lanak egiten, gizonek ematen dutenaren bikoitza baino gehiago (ordu 1 eta 29 minutu).

Etxean pertsonak (umeak eta mendeko pertsonak) zaintzeari dagokionez, batez beste 2 ordu eta 18 minutu ematen dituzte emakumeek egunean, eta gizonen batezbesteko denbora ordu 1 eta 41 minutukoa da.

Datuek adierazten dute gizonen portaeraren ondorioz oraindik ere nabarmenak direla etxeko lanetan eta zaintzan gizonek eta emakumeek duten partaidetzaren arteko ezberdintasunak, erantzukidetasunetik urrun oraindik ere. Horrek ez du partaidetza, ekarpena edo laguntza bakarrik esan nahi, baizik eta beharrianak antolatu, kudeatu eta mantentzeaz arduratzea ere, hau da, ugaltze-lanaren erantzukidea izatea.

Denboraren erabilerari buruzko inkesta horiek argi azaltzen dute lan-karga osoa ez dagoela berdin banatuta emakumeen eta gizonen artean. Arrazoiak hainbat dira, baina laburbiltzeko esan daiteke emakumeek gure gizartean bizitzeko duten moduaren funtsezko ezaugarrietako bat presentzia bikoitza dela. Gizarte honetan, emakumeek, lan-jarduera izan zein ez, euren gain hartzen dituzte etxeko lanak eta familiako pertsonen zaintza, eta egoera hori genero-ezberdintasunen jatorrian ikusten da. Lanaren sexuaren arabera banaketa dago oraindik, nahiz eta azken urteetan aldaketa garrantzitsuak ikusi diren familia-ereduetan eta bizikidetzak-moduetan, eta gero eta malguagoak diren sexu bakoitzari esleitutako eginkizunak.

**5.1.2 Aisia.****Batez besteko gizarte-denbora, zereginen eta sexuaren arabera. 2008.**

|                           | Emakumeak | Gizonak | E-G   |
|---------------------------|-----------|---------|-------|
| Fisiologi beharrak        | 11:38     | 11:43   | -0:05 |
| Lana eta prestakuntza     | 2:49      | 3:06    | -0:17 |
| Etxeko lanak              | 3:25      | 1:19    | 2:06  |
| Etxeko pertsonak zaintzea | 0:36      | 0:19    | 0:17  |
| Ugaltze-lana              | 4:01      | 1:38    | 2:23  |
| Gizarte-harremanak        | 0:36      | 0:41    | -0:05 |
| Aisia aktiboa eta kirolak | 1:05      | 1:38    | -0:33 |
| Aisia pasiboa             | 2:48      | 3:01    | -0:13 |
| Aisia guztira             | 4:29      | 5:20    | -0:51 |
| Joan-etorriak             | 1:03      | 1:09    | -0:06 |

Fuente: EUSTAT. Denboraren erabilera soziala inkesta

Gizonek emakumeek baino denbora gehiago erabiltzen dute aisiarako, egunean ordu bat gehiago batezbeste. Aldiz, emakumeek bi ordu eta erdi gehiago erabiltzen dute ugaltze-lanerako eta 17 minutu gutxiago ekoizte-lanerako eta prestakuntzarako.

**5.1.3 Emakumeen eta gizonen joan-etorriak, modua eta mota.**

Gizonen % 47k joan-etorriren bat egiten du autoz, emakumeen ehunekoak % 27koa dela. Aldiz, garraio kolektiboari dagokionez, emakumeen % 17k erabiltzen du egunean behin, eta gizonen % 11k. Joan-etorriak egiteko arrazoia ere ezberdina da. Lanera joateko erabiltzen duten gehienak gizonezkoak dira, eta beste pertsona batzuk zaintzeko edo laguntzeko mugitzen diren gehienak emakumezkoak dira.

Fuente: EUSTAT- Denbora-aurrekontuen inkesta 2008.

**5.1.4 Sedentarismoaren ehunekoa, adinaren eta sexuaren arabera**

2008. urtean *Gaceta Sanitaria* aldizkarian argitaratu zen “Impacto del cuidado informal en la salud y la calidad de vida de las personas cuidadoras:



análisis de las desigualdades de género” azterlanaren arabera (Larrañaga I., Martín U., Bacigalupe A., Begiristain J.M., Valderrama M.J. eta Arregi B.) **zaintzeko erantzukizuna** emakumeek dute batez ere. Zeregin hori onartzen duten pertsonak gizarte- eta ekonomia-maila txikiagoa izan ohi dute. Emakumeek zaintzeko erabiltzen dituzten **denbora eta maiztasunak** gizonen erabilitakoak baino handiagoak dira. Emakume zaintzaileen bi heren baino gehiagok etengabeko zaintzak ematen dituzte, gizonen erdiak egiten duela hori, eta gizonen baino maiztasun handiagoz hartzen dituzte zaintza-karga handiak (% 40,9 eta % 28,9, hurrenez hurren). Zaintzeko jardueratik eratorritako eragin negatiboa sendoagoa da emakumeengan gizonengan baino, eta horrexegatik dute emakumeek dedikazio handiagoa. Emakumezko zaintzaileek gizonetakoek baino sedentarismo-tasa handiagoak aipatzen dituzte, baita lo-ordu gutxiago eta atseden gutxiago ere. Osasun mental txarra izateko arriskua 1,9 aldiz handiagoa da emakume zaintzaileengan zaintzen ez duten emakumeengan baino, eta ehuneko hori % 1,7koa da gizonetako kasuan. Osasuneko ondorioak lan-karga kontuan hartuta aztertzen direnean, sexuen arteko ezberdintasunak txikitu egiten dira: bada, zaintza-karga handia duten gizonetako zaintzaileengan erantzukizun berdina daukaten emakumeen maila berean edo maila handiagoan handitzen da gizarte-osasun txarra izateko arriskua, eta osasunarekin zerikusia duen bizi-kalitateak antzera egiten du okerrera.

## 5.2. ZAINZARAKO ZERBITZUAK

### **5.2.1. 0-2 urteko adingabeak zaintzeko lekuak. Estaldura-tasa eta lekurik ezak eragindako etxeak.**

2008an 0-2 urteko 54.000 ume inguru zeuden eskolatzeko adinean, eta 34.000 leku inguru eskaini ziren; beraz, % 63koa izan zen adin-talde horretarako estaldura. 0 urteko umeentzat 4.000 leku baino gehiago eskaini



ziren, baina aipatzekoa da adin horretan eskolatzeko moduko 13.000 ume baino gehiago daudela.

2006. urtean 0-5 urteko 3.500 adingabe inguru, hau da, adin horretako adingabeen % 2,4, ez ziren haurtzaindegira edo haur-eskolara joan inguruan lekurik ez zegoelako, egokitutako plazarik ez zegoelako, ordutegia egokia ez zelako edo garestia zelako. Adingabe horien % 43, ia 1.500 ume, ez zegoen eskolatuta inguruan lekurik ez zegoelako.

### **5.2.2 Haurtzaindegian edo haur-eskolan lekurik ez egoteak eragindako etxeak**

2006. urtean 0-5 urteko 3.500 adingabe inguru, hau da, adin horretako adingabeen % 2,4, ez ziren haurtzaindegira edo haur-eskolara joan inguruan lekurik ez zegoelako, egokitutako plazarik ez zegoelako, ordutegia egokia ez zelako edo garestia zelako. Adingabe horien % 43, ia 1.500 ume, ez zegoen eskolatuta inguruan lekurik ez zegoelako.

### **5.2.3 Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea. Zaintzaz arduratzeko eragozpenak.**

Errealitatea ikusita, ezinbestekoa izan da lana eta familia uztartzearen gaia aztertzea. Uztartzea, zalantzarik gabe, erronka garrantzitsuenetako bat da lan-merkatua osatzen duten eta, era berean, beste pertsona batzuk zaindu behar dituzten pertsonentzat. Halaxe dago berretsita “EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa” izeneko txosten kualitatiboan. Datu kuantitatiboek diote 2009. urtean soldatapeko biztanleen % 16,7k zailtasunak zituela lan-ordutegia eta familia eta gizarteko gainerako beharrak egoki uztartzeko. Gainera, korrelazioa ikusi da lanera ez agertzearen eta uztartzeko arazoaren artean. Gauzak horrela aipatu behar da 2008an EAEko etxeen % 12,6k ekonomikoak ez diren arazoak dituela adingabeak edo adineko pertsonak zaintzearekin lotuta, esaterako haurtzaindegian lekurik ez egotea,



zaintzaileak kontratatzeko zailtasunak, arreta emateko gehiegizko karga... Kasuen % 8 problematika garrantzitsua direla esaten da.

Gogoan izan behar da emakume gehienak eremu publikoan sartzeak ekarri duen aldaketa sozialak ez diela berdin eragin familia-sistemako kide guztiei.

Emakumeen eta gizonen artean ez dago erantzukidetasun nahikorik etxeko gaiez artatzeko orduan, eta ondorioz generoen artean ezberdintasunak daude uztartzeko arazoekin lotuta. 2009an emakumeen % 21,1ek gehienezko lan-kargari egin behar dio aurre, lanekoari eta familiakoari. 25 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 10,4k unerren batean lanen bat utzi dute familian lan gehiegi zutelako edo seme edo alabaren bat jaio zelako, eta horrek EAEko etxeen % 8,1 esan nahi du. 25 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 5,4k unerren batean lana eten dute azken hiru urteetan familian lan gehiegi zutelako edo seme edo alabaren bat jaio zelako.

## 6. INDARKERIA

### 6.1. Genero-indarkeria dela-eta emakumeek jarritako salaketak eta salaketa jarri duten emakumeak. 2010

| <b>Genero-indarkeria dela-eta emakumeek jarritako salaketen kopurua. 2010</b> |              |              |
|-------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------|
| INDARKERIA-MOTA                                                               | KOP. GUZTIRA | GUZTIRA<br>% |
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria                         | 2.213        | 74,16        |
| Familia barruko genero-indarkeria                                             | 575          | 19,27        |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                                                  | 196          | 6,57         |
| <b>KOP. GUZTIRA</b>                                                           | <b>2.984</b> |              |
| <i>GUZTIRA (%)</i>                                                            | 100          | 100          |

Fuente: Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

2010ean Ertzaintzan aurkeztutako salaketak 2.984 izan dira, eta gehien salatu den genero-indarkeria bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa izan da, lau salaketatik hiruko proportzioan. Bigarren lekuan dago "familia



barruko” gisa sailkatutako indarkeria, bost salaketatik bat baino zertxobait gutxiagoko proportzioan. Hirugarren lekuan dagoen indarkeriak askoz salaketa gutxiago ditu, 196, hau da, % 6,57.

### Genero-indarkeria dela-eta salaketa jarri duten emakumeak. 2010

| INDARKERIA-MOTA                                       | GUZTIRA      | GUZTIRA (%) |
|-------------------------------------------------------|--------------|-------------|
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria | 1.703        | 70,61       |
| Familia barruko genero-indarkeria                     | 515          | 21,35       |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                          | 194          | 8,04        |
| <b>KOP. GUZTIRA</b>                                   | <b>2.412</b> |             |
| <b>GUZTIRA (%)</b>                                    |              | 100         |

Salaketak beti ez ditu biktimak berak aurkeztu, batzuetan senideek, lagunek... aurkeztu dute. Bada, Ertzaintzako datuek azaltzen dute aurkeztu zaizkion 2.984 salaketen artean 2.412 indarkeria jasan zuten emakumeek ipini zituztela. Horrek esan nahi du bost salaketatik lau ipini zutela indarkeria jasaten duten emakumeek eurek.

Salaketa ipini duten emakumeen eta ipinitako salaketen arteko erlazioak azaltzen du salaketa horien % 80,83 emakumeek eurek ipini zituztela, eta egoera hori ez da hain ohikoa indarkeria egin duena bikotekidea edo bikotekide ohia izan denean.

### 6.2 Genero-indarkeria dela-eta emakumeek jarritako salaketak eta salaketa jarri duten emakumeak. 2010-2011

#### Genero-indarkeria dela-eta jarritako salaketak. 2011ko urtariletik ekainera-2010

|                 | 2011 |   | 2010 |   | ▲ |
|-----------------|------|---|------|---|---|
| INDARKERIA-MOTA | Kop. | % | Kop. | % | % |



|                                                       |              |            |              |            |              |
|-------------------------------------------------------|--------------|------------|--------------|------------|--------------|
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria | 1.248        | 74,87      | 1.045        | 73,80      | 19,43        |
| Familia barruko genero-indarkeria                     | 323          | 19,38      | 282          | 19,92      | 14,54        |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                          | 96           | 5,75       | 89           | 6,28       | 7,87         |
| <b>KOP. GUZTIRA</b>                                   | <b>1.667</b> | <b>100</b> | <b>1.416</b> | <b>100</b> | <b>17,73</b> |

Fuente: Herrizaingo Saila. 2011ko urtariletik ekainera

2011ko lehenengo sei hilabeteetan Ertzaintzak erregistratu dituen genero-indarkeriaren **salaketak** 1.667 izan dira, 2010eko aldi berean baino % 17,73 gehiago.

Salatu diren indarkeria-motak 2010. urte osoan egondakoen oso antzekoak izan dira.

#### Genero-indarkeria dela-eta salaketa jarri duten emakumeak. 2011ko urtariletik ekainera-2010

| INDARKERIA-MOTA                                       | 2011         |            | 2010         |            | ▲<br>%       |
|-------------------------------------------------------|--------------|------------|--------------|------------|--------------|
|                                                       | Kop.         | %          | Kop.         | %          |              |
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria | 1.037        | 72,37      | 898          | 71,50      | 15,48        |
| Familia barruko genero-indarkeria                     | 301          | 21,00      | 269          | 21,42      | 11,90        |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                          | 95           | 6,63       | 89           | 7,08       | 6,74         |
| <b>GUZTIRA</b>                                        | <b>1.433</b> | <b>100</b> | <b>1.256</b> | <b>100</b> | <b>14,09</b> |

Fuente: Herrizaingo Saila. 2011ko urtariletik ekainera

**2011ko** lehenengo sei hilabeteetan **1.433** emakumek salatu zuten indarkeria-motaren bat jasan zutela, 2010eko epe berean egondakoak baino % 14,9 gehiago.

2011ko lehenengo hilabeteetan biktimek eurek salatutako gertakarien motak antzekoak dira urte berean erregistratutako salaketekin (% 74,87, % 19,38 eta % 5,75) eta 2010ean salatutakoekin (% 73,80, % 19,92 eta % 6,28) alderatuta.

2011ko lehenengo sei hilabeteetan Ertzaintzak erregistratutako salaketen eta salaketak ipini dituzten emakumeen datuak erkatuta, aurkeztu diren 1.667 salaketetatik 1.433 indarkeria jasan duten emakumeek aurkeztu zituzten, guztizko kopuruaren % 85,96, ehuneko hori 2010ean egondakoa baino bost puntu gehiagokoa dela (% 80,83).



### **6.3. EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. 2010**

Garrantzitsua da biktimizazioen eta biktimen artean bereiztea, biktimizazioak gertakariak baitira, eta biktimak pertsonak.

Ertzaintzak egiaztatutako 4.285 biktimizazioak guztira 3.507 biktimarekin daude lotuta, eta horrek esan nahi du emakume batzuek indarkeria-gertaera bat baino gehiago jasan zutela, batez beste 1,22, hain zuzen ere.

#### **Biktimizazioen eta biktimen arteko erkaketa. 2010**

| INDARKERIA-MOTA                                       | Biktimizazioak | Emakume biktimak | Biktimiz/Biktimak |
|-------------------------------------------------------|----------------|------------------|-------------------|
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria | 3.238          | 2.565            | 1,26              |
| Familia barruko genero-indarkeria                     | 835            | 732              | 1,14              |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                          | 212            | 210              | 1,01              |
| <b>GUZTIRA</b>                                        | <b>4.285</b>   | <b>3.507</b>     | <b>1,22</b>       |

2011ko lehenengo bost hilabeteetan 1.922 biktimizazio egon dira, hau da, aurreko urtearen aldi berean baino % 17,12 gehiago. Ehunekoa handitu da, hein handi batean, bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeriaren ondorioz, % 18,67 hazi baita: 1.237 biktimizazio egon ziren 2010ean eta 1.468 2011n. "Sexu-askatasunaren kontrako" delituak nabarmen handitu dira, baina multzoan duen pisua txikiagoa da.

Biztanleria eta genero-indarkeriaren bat jasan duen emakumeen kopurua erkatzean ondorioztatzen da mila emakumetik ia lauk genero-indarkeriaren bat jasan duela 2010. urtean.

EAEko 18 urte baino gehiagoko emakume guztiak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak aztertuta ikusten da ia bi emakumek jasan dutela 2011ko lehenengo bost hilabeteetan. 2010ean tasa 3,64koa izan zen.

### **6.4. EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. 2011ko URTARRILETIK EKAINERA - 2010**

**Emakumeen biktimizazioak. 2011ko urtarriletik ekainera-2010**

| INDARKERIA-MOTA                                       | 2011         |               | 2010         |               | ▲            |
|-------------------------------------------------------|--------------|---------------|--------------|---------------|--------------|
|                                                       | Kop          | %             | Kop          | %             | %            |
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria | 1.800        | 76,38         | 1.523        | 75,38         | 18,19        |
| Familia barruko genero-indarkeria                     | 452          | 19,09         | 415          | 20,60         | 8,92         |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                          | 105          | 4,53          | 96           | 4,02          | 9,38         |
| <b>GUZTIRA</b>                                        | <b>2.357</b> | <b>100,00</b> | <b>2.034</b> | <b>100,00</b> | <b>15,88</b> |

2011ko lehenengo sei hilabeteetan 2.357 biktimizazio egon dira, hau da, aurreko urtearen aldi berean baino % 15,88 gehiago. Ehunekoa handitu da, hein handi batean, bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeriaren ondorioz, % 15,88 hazi baita: 2.034 biktimizazio egon ziren 2010ean eta 2.357 2011n.

**Emakume biktimak. 2011ko urtarriletik ekainera-2010**

| INDARKERIA-MOTA                                       | 2011         |            | 2010         |               | ▲            |
|-------------------------------------------------------|--------------|------------|--------------|---------------|--------------|
|                                                       | Kop          | %          | Kop          | %             | %            |
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria | 1.445        | 74,15      | 1.298        | 72,65         | <b>11,33</b> |
| Familia barruko genero-indarkeria                     | 403          | 20,48      | 375          | 22,51         | <b>7,47</b>  |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                          | 104          | 5,37       | 96           | 4,84          | <b>8,33</b>  |
| <b>GUZTIRA</b>                                        | <b>1.952</b> | <b>100</b> | <b>1.769</b> | <b>100,00</b> | <b>10,34</b> |

2011ko lehenengo sei hilabeteetan 1.952 emakume izan ziren genero-indarkeriaren biktima, aurreko urtearen epe berean baino % 10,34 gehiago.

Biktimizazioei buruzko datuak aurkeztean genero-indarkeria nabarmen handitu izanarekin bat etorrira, 2011ko lehenengo sei hilabeteetan, emakume biktimak % 10,34 hazi dira, batez ere bikotekideek edo bikotekide ohiek egindako indarkeriaren ondorioz.

**Biktimizazioen eta biktimen arteko erkaketa. 2011ko urtarriletik ekainera**



| INDARKERIA-MOTA                                       | Biktimizazioak | Emakume<br>biktimak | Biktimiz/Bi<br>ktimak |
|-------------------------------------------------------|----------------|---------------------|-----------------------|
| Bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria | 1.800          | 1.445               | <b>1,25</b>           |
| Familia barruko genero-indarkeria                     | 452            | 403                 | <b>1,12</b>           |
| Sexu-askatasunaren kontrakoa                          | 105            | 104                 | <b>1,01</b>           |
| <b>GUZTIRA</b>                                        | <b>2.357</b>   | <b>1.952</b>        | <b>1,21</b>           |

Taulan azaldutakoaren arabera, indarkeria-gertakari bat baino gehiago jasan duten emakumeak daude, 1.952 emakume biktima daudelako, eta 2.357 indarkeria-gertakari. Inguruabar hori ohikoagoa da indarkeria bikotekideak edo bikotekide ohiak egin duenean.

#### **6.5. Genero-indarkeriaren eragina EAEn 2011ko urtarriletik ekainera bitartean**

B.4.4 atalean bezala, erkaketa egin da 2011ko lehenengo sei hilabeteetan genero-indarkeriaren biktima izan diren emakume kopuruaren eta 18 urte baino gehiagoko emakumeen artean, EUSTATen datuei jarraituz.

#### **Emakume biktimen eta emakumezko biztanleen erkaketa. 2011ko urtarriletik ekainera**

|                             | Kop.         | 18 urte baino<br>gehiagoko<br>emakumeak | Kop. / Emak. |
|-----------------------------|--------------|-----------------------------------------|--------------|
| <i>Emakume<br/>biktimak</i> | <b>1.952</b> | <b>953.995</b>                          | <b>2,05*</b> |

\* Tasa bider mila

EAEko 18 urte baino gehiagoko emakume guztiak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak aztertuta ikusten da mila emakumetik bik jasan dutela 2011ko lehenengo sei hilabeteetan. 2010ean tasa 3,67koa izan zen.

#### **6.6. EAEn eta estatuan hildako emakumeak.**

2010. urtean 5 emakume hil zituzten genero-indarkeriaren ondorioz: horietako bi bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria



hilgarriaren biktima izan ziren, eta gainerako hirurak familia barruko genero-indarkeriaren biktima. Estatuan 97 emakume hil zituzten 2010. urtean.

2011ko lehenengo sei hilabeteetan EAEn 2 emakume hil ziren bere bikotekideak edo bikotekide ohiak hilda. Estatuan 40 emakume hil zituzten epe berean.

#### **6.7. Sexu-askatasunaren kontrako delituen ondoriozko emakumeen biktimizazioak**

| <b>Genero-indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak. Sexu-askatasunaren kontrako indarkeria. 2011ko urtarriletik ekainera-2010</b> |             |             |             |            |             |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|-------------|-------------|------------|-------------|
|                                                                                                                                            | <b>2011</b> |             | <b>2010</b> |            | <b>▲</b>    |
|                                                                                                                                            | <b>Kop.</b> | <b>%</b>    | <b>Kop.</b> | <b>%</b>   | <b>%</b>    |
| Indarkeria-mota                                                                                                                            |             |             |             |            |             |
| Sexu-erasoa                                                                                                                                | 54          | 51,43       | 54          | 56,25      | -           |
| Sexu-abusua                                                                                                                                | 37          | 35,24       | 35          | 36,46      | 5,71        |
| 13 urtetik beherakoei egindako sexu-abusua/-erasoa                                                                                         | 4           | 3,81        | -           | -          | -           |
| Sexu-jazarpena                                                                                                                             | -           | -           | 3           | 3,13       | -100,0      |
| Exhibizionismoa                                                                                                                            | 8           | 7,62        | 4           | 4,17       | 100,0       |
| <b>Adingabeak galbidean jartzea</b>                                                                                                        | <b>2</b>    | <b>1,90</b> | <b>-</b>    |            | <b>-</b>    |
| <b>GUZTIRA</b>                                                                                                                             | <b>105</b>  | <b>100</b>  | <b>96</b>   | <b>100</b> | <b>9,38</b> |

2011ko lehenengo sei hilabeteetan Ertzaintzak 105 biktimizazio erregistratu zituen “sexu-askatasunaren kontrako” gisa sailkatutako gertakarien ondorioz, iaz baino % 9,38 gehiago (iaz 96 izan ziren).

Ia gertakari guztiak talde bitan bereiz daitezke: “Sexu-erasoak” eta “Sexu-abusuak”, % 51,43 eta % 35,24. hurrenez hurren. 2010ean ere inguruabar bera ikusi zen, baina % 56,25 eta % 36,46koa izan zen eragina.



### **6.8. Genero-indarkeria dela-eta bizkartzaina duten emakumeak**

2011ko ekainaren 10ean 46 emakumek zuten bizkartzaina EAEn genero-indarkeriaren ondorioz. 2010eko abenduaren 31n 19 emakumek zuten bizkartzaina.

### **6.9 Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatu duten eta alokairu-erregimeneko etxebizitzak esleitzeko prozesuetan parte hartzen ari diren emakumeen espedienteak**

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebide Zerbitzuak emandako datuen arabera, 2010eko abenduaren 31n 224 espediente zeuden, guztira, genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatu duten eta hala eskatu duten udalerri guztietan alokairu-erregimeneko etxebizitzak esleitzeko prozesuetan aktiboki parte hartzen ari diren emakumeentzat.

Gainera, nabarmentzekoa da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen 224 espediente horiek, guztiak, salbuetsi egin direla.

### **6.10. Genero-indarkeriaren biktima diren eta etxebizitza-zozketetan alokairuko etxebizitzaren esleipendun izan diren emakumeen espedienteak.**

Gainera, aipatu beharra dago ohiko prozeduretan (hau da 2010eko ekitaldiko etxebizitzaren zozketetan) sartu diren 224 espedienteetatik 19 emakume izan direla esleipendun, hau da, espedienteen % 8,48 (2009an % 4 izan ziren).

Beste alde batetik, etxebizitzak zuzenean esleitzeko aukerarako 15 eskaera egon dira 2010. urtean, eta 11 onartu dira (kontuan izan onartu ez diren eskaerak baldintzaren bat bete ez delako baztertu direla).



### 3.- ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO ORDEZKARITZARI BURUZKO AZTERKETA

Txosten hau egitean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen osaera aztertu behar izan da, erakundean berdintasuna norainokoa den eta erabakiak hartzeko maila ezberdinetan arduradunak nortzuk diren jakitearren. Gauzak horrela, EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratupeko langileen sexuaren arabera banaketa aztertu da kapitulu honetan. EAEko administrazioan lan egiten duten gizon eta emakumeen proportzioa eta, batez ere, erantzukizunak izan eta erabakiak hartzeko mailen arabera presentzia jakitean ondorio garrantzitsuak atera daitezke aukera-berdintasunari buruz.

Administrazioko langileen azterketa honek, bestalde, aukera ematen du genero-eraginari buruzko txostenaren egituraren beharrezkoa den edukietako bat betetzeko, hau da: emakume eta gizonen partaidetza araua egiteko prozesuan. Horri dagokionez aipatu behar da atal honetan aipatutako taldeak alde batera utzita, ez dela ikusi arau hau egiten parte hartu duen beste talderik.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak dio emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua egon behar dela erabakiak hartzeko eremu guztietan, sexu biek gutxienez % 40ko ordezkartza dutenean. Bada, ondoren azaldu diren taulak aztertuta, erraz ikus daiteke ordezkartza orekatuaren printzipioa betetzen den ala, aldiz, sexuren batek gehiegizko ordezkartza duen.

Aztertu diren taldeak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako langileen banaketa, sexuaren arabera.
- Unibertsitateaz kanpoko irakasleen banaketa, sexuaren arabera
- Osasun-erakundeetako langileen banaketa, sexuaren arabera
- Segurtasun-kidegoen (Ertzaintza) banaketa, sexuaren arabera



- Justizia Administrazioako langileen banaketa, sexuaren arabera

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOETAKO LANGILEEN ETA GOI-KARGUDUNEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

### 1.1 Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera

| <b>Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera. 2011</b> |               |                  |         |                |         |
|-------------------------------------------------------------------|---------------|------------------|---------|----------------|---------|
|                                                                   | Guztira /Abs. | <b>Emakumeak</b> |         | <b>Gizonak</b> |         |
|                                                                   |               | Abs.             | %       | Abs.           | %       |
| Sailburuak                                                        | 10            | 5                | % 50    | 5              | % 50    |
| Sailburuordeak / Idazkari nagusiak                                | 35            | 14               | % 40    | 21             | % 60    |
| Zuzendariak                                                       | 124           | 55               | % 44,35 | 69             | % 55,65 |

Iturria: Bertan eginda, [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) aztertu eta sailei galdetu ondoren (kontsultaren data: 2011ko iraila)

Eusko Jaurlaritzak 10 sail ditu gaur egun, eta 5 dira emakumezko sailburuak. Lehendakaritza saileko burua lehendakaria da. Eusko Jaurlaritzak 35 sailburuordetza eta idazkaritza nagusi ditu, eta % 40tan dira emakumezkoak buruak.

Eusko Jaurlaritzako sail gehienek parekotasun-printzipioa betetzen dute sailburuordetza eta idazkaritza nagusietako emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez. Kargu horietan gizonen presentzia emakumeena baino nabarmen handiagoa duen sail bakarra Lehendakaritza da, lau gizon eta emakume bat baitira. Herri Administrazio Sailean bakarrik da emakumezko sailburuordeen kopurua gizonetako sailburuordeena baino handiagoa, hiru emakume eta gizon bat baitira.



Zuzendaritzei dagokienez, emakume eta gizonen presentzia orekatua du gobernuak, nahiz eta gizonak gehiago izan: 124 zuzendari daude guztira, eta horietatik 69 gizonetzkoak dira.

1.2 Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

**FUNTZIONARIOAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011**

|                          | A1  |     | A2  |     | C1  |     | C2  |      | E   |     | GUZTIRA |      |
|--------------------------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|------|-----|-----|---------|------|
|                          | G   | E   | G   | E   | G   | E   | G   | E    | G   | E   | G       | E    |
| Karrerako funtzionarioak | 511 | 385 | 146 | 143 | 172 | 238 | 197 | 947  | 250 | 87  | 1276    | 1800 |
| Bitarteko funtzionarioak | 348 | 536 | 108 | 107 | 113 | 189 | 161 | 730  | 227 | 165 | 653     | 1255 |
| GUZTIRA                  | 859 | 921 | 254 | 250 | 285 | 427 | 358 | 1677 | 477 | 252 |         |      |

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2011ko uztaila.

**LAN-KONTRATUPEKO LANGILEAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011**

|                                            | Goi-mailako tituluduna |     | Erdi-mailako tituluduna |    | Bestelako tituludunak |     | GUZTIRA |     |
|--------------------------------------------|------------------------|-----|-------------------------|----|-----------------------|-----|---------|-----|
|                                            | G                      | E   | G                       | E  | G                     | E   | G       | E   |
| Lan-kontratupeko langile finkoak           | 72                     | 35  | 36                      | 50 | 203                   | 193 | 311     | 208 |
| Aldi baterako lan-kontratupeko langileak * | 28                     | 45  | 19                      | 43 | 131                   | 197 | 178     | 285 |
| Behin-behinekoak                           | 44                     | 37  | 1                       | 1  | 3                     | 8   | 48      | 46  |
| GUZTIRA                                    | 144                    | 117 | 56                      | 94 | 337                   | 398 |         |     |



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2011ko uztaila.

Ehunekoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen % 59,30 emakumezkoak dira, eta % 40,60 gizonezkoak. Horrek esan nahi du ordezkartza orekatuaren printzipioa bete egiten dela.

Hala ere, datuak zehatzago aztertuta ikus daiteke gizon gehiago dagoela lanean administrazio goi-mailetan eta, gainera, lan-arloko egonkortasuna dutela (karrerako funtzionarioak eta lan-kontratupeko langile finkoak). Bestalde, argi ikusten da orokorrean emakumeen lan-arloko ezegonkortasuna administrazioan gizonena baino nabarmen handiagoa dela: lan-arloko ezegonkortasuna duten administrazioko langileen % 65 inguru emakumezkoak dira. Nabarmentzekoa da C2 taldean gero eta emakume gehiago daudela, funtzionarioen % 82 baitira emakumezkoak.

## 2- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASLEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

### 2.1 Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera: haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, helduen hezkuntza, hezkuntza berezia

| <b>Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera.</b> |          |           |       |         |       |         |
|----------------------------------------------------|----------|-----------|-------|---------|-------|---------|
| EMATEN<br>MAILAK                                   | DITUZTEN | EMAKUMEAK |       | GIZONAK |       | GUZTIRA |
|                                                    |          | Abs.      | %     | Abs.    | %     |         |
| GUZTIRA                                            |          | 24.131    | 71,67 | 9.539   | 28,33 | 33.670  |
| Haur hezkuntza - lehen hezkuntza                   |          | 13.918    | 85,25 | 2.409   | 14,75 | 16.327  |
| Bigarren hezkuntza                                 |          | 8.991     | 58,01 | 6.509   | 41,99 | 15.500  |
| Hezkuntza berezia                                  |          | 409       | 77,02 | 122     | 22,98 | 531     |
| Helduen hezkuntza                                  |          | 530       | 70,76 | 219     | 29,24 | 749     |
| Irakaslanik gabe                                   |          | 962       | 63,92 | 543     | 36,08 | 1.505   |

Iturria: Eustat, 2010.



Irakasleen osaera orokorrari dagokionez, emakume asko ari dira lanean unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, batez ere lehen eta bigarren hezkuntzan. Batez ere emakumezkoak dira alor honetan lanean dabiltzanak, irakaskuntza pribatuan zein irakaskuntza publikoan. Guztira 33.670 pertsona dabilta irakasle lanetan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, eta % 71,67 emakumezkoak dira.

Emakumeen presentzia bereziki nabarmena da irakaskuntza-mota bitan, hau da, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan batetik, eta hezkuntza berezian bestetik.

Gauzak horrela, aipatzekoa da haur-hezkuntza eta lehen hezkuntzaren eremua: bertako irakasleen % 14,27 baino ez dira gizonezkoak eta, ondorioz, ikasleek ia ez dute erreferentzia maskulinorik irakaskuntzaren maila horretan.

Lanbide-heziketari dagokionez, irakasle gehienak gizonezkoak izateak eragina du bai ikasleengan baita irakasleengan ere. Unibertsitate aurreko irakaskuntza osoan honetan bakarrik da gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa, ehuneko oso adierazgarriekin, joera alderantzikatzen dela.

Erabaki-guneetarako sarbideari dagokionez, emakumeen presentzia oso handia denez sektorean, errazagoa da emakumeak ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetan egotea, eta datuek diote banaketa orekatua dela. Hezkuntza Sailak datozen 4 urteetarako ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetarako egin dituen izendapenei buruzko azken datuen arabera (2009ko uztailekoak), 2009an egin ziren 174 izendapenetatik 83 (% 47,7) emakumezkoak dira eta 91 (% 52,3) gizonezkoak.

### 3- OSASUN-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

#### 3.1 Osasun-erakundeetako osasun-langileak, taldearen eta sexuaren arabera.


**Osasun-erakundeetako funtzionarioak eta estatutupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011**

|                                                       | A1    |       | A2  |       | C1 |     | C2  |       | GUZTIRA |        |
|-------------------------------------------------------|-------|-------|-----|-------|----|-----|-----|-------|---------|--------|
|                                                       | G     | E     | G   | E     | G  | E   | G   | E     | G       | E      |
| Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa | 2.326 | 2.276 | 504 | 5.149 | 68 | 587 | 106 | 2.746 | 3.004   | 10.758 |
| Estatutupeko aldi baterako langilea                   | 253   | 422   | 55  | 831   | 8  | 78  | 13  | 266   | 329     | 1.597  |
| GUZTIRA                                               | 2.579 | 2.598 | 559 | 5.980 | 76 | 665 | 119 | 3.012 | 3.333   | 12.355 |

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2011ko uztaila

**Osasun-erakundeetako lan-kontratupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011**

|                                          | Goi-mailako tituluduna |     | Erdi-mailako tituluduna |     | Bestelako tituluduna <sup>k</sup> |     | GUZTIRA |      |
|------------------------------------------|------------------------|-----|-------------------------|-----|-----------------------------------|-----|---------|------|
|                                          | G                      | E   | G                       | E   | G                                 | E   | G       | E    |
| Lan-kontratupeko langile finkoak         | 224                    | 101 | 61                      | 832 | 77                                | 682 | 362     | 1615 |
| Aldi baterako lan-kontratupeko langileak | 1                      | 2   | 0                       | 1   | 0                                 | 5   | 1       | 8    |
| GUZTIRA                                  | 225                    | 103 | 61                      | 833 | 77                                | 687 |         |      |

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2011ko uztaila

EAEko osasun-langileen sexuaren araberrako banaketa ez dago orekatuta, langileen % 79,09 emakumezkoak baitira, 13.978, hain zuzen ere. Emakumeen gehiegizko ordezkartza nabaria da maila guztietan, A1 taldeko langileen eta goi-mailako tituludunen artean izan ezik. Horietan gizon gehiago dago, baina parekotasun-printzipioa betetzen da Emakumeek gehiegizko ordezkartza daukate, neurri handi batean, A2 taldeko partaidetza ez delako orekatua. A2 taldean erizaintzan diplomatutako langileak daude batez ere, eta



lan-merkatu horretako langile gehienak emakumezkoak izatea azaltzen du horrek. Aipatzekoa da, baita ere C2 maila. Prestakuntza-maila txikiena eskatzen da bertara sartzeko eta, ondorioz, ordainsari-maila txikiena ere badu. Bertako langileen % 96 emakumezkoak dira eta, beraz, argi dago segregazio bertikal izugarria dagoela.

3.2 Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, taldearen eta sexuaren arabera. Kudeaketa eta zerbitzuetako langileak.

| <b>Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, funtzionarioak eta estatutupeko langileak.</b> |     |     |    |    |     |     |     |      |     |       |         |      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|-----|----|----|-----|-----|-----|------|-----|-------|---------|------|
| <b>2011</b>                                                                                    |     |     |    |    |     |     |     |      |     |       |         |      |
|                                                                                                | A1  |     | A2 |    | C1  |     | C2  |      | E   |       | GUZTIRA |      |
|                                                                                                | G   | E   | G  | E  | G   | E   | G   | E    | G   | E     | G       | E    |
| Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa                                          | 128 | 126 | 33 | 86 | 162 | 231 | 451 | 960  | 824 | 748   | 1.598   | 2151 |
| Estatutupeko aldi baterako langilea                                                            | 39  | 43  | 10 | 13 | 25  | 56  | 43  | 210  | 68  | 192   | 185     | 514  |
| GUZTIRA                                                                                        | 167 | 169 | 43 | 99 | 187 | 287 | 494 | 1170 | 892 | 1.170 |         |      |

| <b>Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, lan-kontratupeko langileak.</b> |                        |    |                         |    |                       |     |         |     |
|---------------------------------------------------------------------------------|------------------------|----|-------------------------|----|-----------------------|-----|---------|-----|
| <b>2011</b>                                                                     |                        |    |                         |    |                       |     |         |     |
|                                                                                 | Goi-mailako tituluduna |    | Erdi-mailako tituluduna |    | Bestelako tituludunak |     | GUZTIRA |     |
|                                                                                 | G                      | E  | G                       | E  | G                     | E   | G       | E   |
| Lan-kontratupeko langile finkoak                                                | 19                     | 12 | 17                      | 26 | 359                   | 447 | 395     | 485 |
| Aldi baterako lan-kontratupeko                                                  |                        |    |                         |    |                       | 3   |         | 3   |



langileak

|         |    |    |    |    |     |     |
|---------|----|----|----|----|-----|-----|
| GUZTIRA | 19 | 12 | 17 | 26 | 359 | 450 |
|---------|----|----|----|----|-----|-----|

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2011ko uztaila

Langile ez-sanitarioei dagokienez, generoen arteko desoreka osasun-langileena baino txikiagoa den arren, emakumeen ordezkartza guztizkoaren % 62koa da. Gehiegizko ordezkartza hori, batez ere, C2 taldeko ordezkartza orekatua ez delako gertatzen da, bertan % 68 baitira emakumezkoak. Gainerako taldeetan bete egiten da parekotasun-printzipioa, nahiz eta A1 eta E mailetan gizonen ordezkartza pixka bat handiagoa izan.

#### 4 ERTZAINITZA.

##### 4.1 Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera

| Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera |   |   |     |   |     |    |           |     |           |     |    |
|------------------------------------------------------------------|---|---|-----|---|-----|----|-----------|-----|-----------|-----|----|
| ESKALAK                                                          | A |   | B   |   | C   |    | D         |     | GUZTIRA   |     |    |
|                                                                  | G | E | G   | E | G   | E  | G         | E   | G         | E   |    |
| Goi-mailako eskala                                               |   |   |     |   |     |    |           |     |           |     |    |
| Eskala exekutiboa                                                |   |   | 101 | 1 |     |    |           |     | 101       | 1   |    |
| Inspektoreordetza-eskala.                                        |   |   |     |   | 343 | 29 |           |     |           | 343 | 29 |
| Oinarrizko eskala                                                |   |   |     |   |     |    | 6.33<br>9 | 835 | 6.33<br>9 | 835 |    |
| GUZTIRA                                                          |   |   | 101 | 1 | 343 | 29 | 6.33<br>9 | 835 |           |     |    |

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2011ko uztaila



2011ko datuen arabera, plantillaren % 11,31 dira emakumezkoak Ertzaintzan, 865 emakume baitira 7.648 ertzainen artean.

Ehunekoa hain txikia izateak azalpen historikoa du: lehenengo sustapenean emakumeek debekatuta zeukaten Ertzaintzan sartzea, eta hurrengo sustapenetan emakumeen gehienezko kupoa % 15koa izango zela ezarri zen. Sustapen horiek jendetsuenak izan ziren, horietan sartu zen langile kopuru handiena, eta gainera emakumeak garai hartan zuen egoera kontuan hartuta, ulergarria da gaur egungo ehunekoa hain txikia izatea.

Emakumeak kategoria eta eskaletan duen banaketa Oinarrizko eskalan (agenteak) pilatzen da, % 11,63koa dela banaketa. Inspektoretza-eskalan ere badaude emakumezkoak, % 8,45, hain zuzen ere. Aipatutako datan emakume bakarra dago eskala exekutiboan, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkartza % 0,9koa dela.

## 5 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

### 5.1. Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

| Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera |                   |     |            |     |         |     |
|--------------------------------------------------------------------|-------------------|-----|------------|-----|---------|-----|
| FUNTZIONARIOAK                                                     | Titularra / jabea |     | Bitartekoa |     | GUZTIRA |     |
|                                                                    | G                 | E   | G          | E   | G       | E   |
| Auzitegiko medikua                                                 | 11                | 20  | 9          | 12  | 20      | 32  |
| Prozesu- eta administrazio-kudeaketa                               | 111               | 590 | 54         | 306 | 165     | 896 |
| Prozesu- eta administrazio-izapidetzea                             | 119               | 333 | 43         | 200 | 162     | 533 |



|                    |     |      |     |     |     |     |
|--------------------|-----|------|-----|-----|-----|-----|
| Laguntza judiziala | 135 | 154  | 32  | 129 | 167 | 283 |
| GUZTIRA            | 376 | 1097 | 138 | 647 |     |     |

### Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

| LAN-<br>KONTRATUPEKO<br>LANGILEAK        | Goi-mailako<br>tituluduna |    | Erdi-mailako<br>tituluduna |    | Bestelako<br>tituludunak |    | GUZTIRA |    |
|------------------------------------------|---------------------------|----|----------------------------|----|--------------------------|----|---------|----|
|                                          | G                         | E  | G                          | E  | G                        | E  | G       | E  |
| Lan-kontratupeko langile finkoak         | 3                         | 6  | 3                          | 5  | 15                       | 37 | 24      | 48 |
| Aldi baterako lan-kontratupeko langileak | 7                         | 18 | 4                          | 15 | 11                       | 22 | 22      | 55 |
| GUZTIRA                                  | 10                        | 24 | 7                          | 20 | 26                       | 59 |         |    |

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2011ko uztaila

2011ko uztailan 2.404 ziren Justizia Administrazioako funtzionarioak eta lan-kontratupeko langileak. Gehienak emakumezkoak ziren, eta desoreka nabariak zeuden kidego orokorretan: Prozesu eta administrazio arloetako kudeaketa eta izapidetzea. Auzitegiko medikuen taldean bete egiten da ordezkartza orekatuaren printzipioa, nahiz eta emakumezko presentzia pixka bat handiagoa izan.

Prozesu- eta administrazio-kudeaketan desoreka handia dago sexuaren araberrako ordezkartzan, % 84,44 emakumeak baitira.



#### 4.- GASTUAREN AZTERKETA. AURREKONTU-PROGRAMEN AZTERKETA.

Ondoren sail bakoitzak emandako aurrekontu-programak aztertu dira labur-labur, dakarten generoaren arabeko eragina ebaluatu gabe. Programa horien informazio zehatzagoa nahi izanez gero, txosten honen 8. atala kontsulta daiteke.

9. ataleko txantiloian ikus daitekeen bezala, aurrekontu-programak sailkatzeko aurrekontuaren egitura hartu da kontuan eta, batez ere, aurrekontuen oinarria diren aurrekontu-memoriak. Bada, 4 taldetan sailkatu dira programak, erraz bereizten diren berdintasunaren aldeko helburuen arabera.

Nolanahi ere, aipatzekoa da sailkapen honetan ez direla ekintza guztiak sartu. Ekintza batzuk ez dira bertan islatu, esaterako agiri programatikoak edo Saileko Talde Teknikoko pertsonen egindako lana, salbuespenak salbuespen ez baitira sartu 4 taldeetakoren batean sailkatzeko ekintza moduan.

Jarraian, laburpen moduan, 4 taldeen azterketa aurkeztu da:

#### **4.1 1. TALDEA. Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.**

**1. TALDEA:** Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.

| Saila                     | Ekintza kop. | Kreditua           |
|---------------------------|--------------|--------------------|
| Lehendakaritza            | 1            | 5.233.997 €        |
| Herrizaingoa              | 8            | 1.777.628 €        |
| <b>1. TALDEA, GUZTIRA</b> | <b>9</b>     | <b>7.011.625 €</b> |



Aurrekontu-programa bakoitzak, definizioz, helburu nagusi bat eta berariazko helburu bat edo gehiago ditu. Berariazko helburu bakoitzak bere ekintza eta adierazleak ditu lotuta. Hori kontuan hartuta, 1. talde honetan aurrekontu-programaren helburu bakartzat berdintasuna sustatzea duten ekintzak sartu dira, hau da, ez dago berdintasuna ez den bestelako helburu edo ekintzarik programa horri lotuta.

Gauzak horrela, talde honetan Lehendakariak Emakunderi emandako aurrekontu-partidak (5.233.997 euroko aurrekontua) eta Herrizaingo Sailak Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari emandako aurrekontu-partidak (1.777.628 euro) baino ez dira ageri.

#### **4.2 2. TALDEA. Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.**

| <b>2. TALDEA: Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.</b> |                     |                    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|--------------------|
| <b>Saila</b>                                                                                                                      | <b>Ekintza kop.</b> | <b>Kreditua</b>    |
| Lehendakaritza                                                                                                                    | 6                   | 45.746,02          |
| Herrizaingoa                                                                                                                      | 3                   | 57.399,20          |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa                                                                                           |                     |                    |
| Ekonomia eta Ogasuna                                                                                                              | 6                   | 54.946,77          |
| Justizia eta Herri Administrazioa                                                                                                 | 2                   | 56.000             |
| Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa                                                                                             | 1                   | 54.000             |
| Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa                                                                                 | 4                   | 53.207,55          |
| Enplegua eta Gizarte Gaiak                                                                                                        | 8                   | 55.188             |
| Osasuna eta Kontsumoa                                                                                                             | 1                   | 54.000             |
| Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza                                                                         | 10                  | 55.000             |
| Kultura                                                                                                                           | 5                   | 55.531,91          |
| <b>2. TALDEA, GUZTIRA</b>                                                                                                         | <b>46</b>           | <b>501.019,45€</b> |



Sailkapen honetan Eusko Jaurlaritzako Berdintasunerako Administrazio Unitate guztiak sartu dira, Hezkuntzako izan ezik. Emakunderen 2011ko ekitaldiari buruzko gomendioei jarraituz, beharrezkotzat jo da berdintasun-politikak sustatu eta koordinatzeko egitura horiek eta berdintasuna sustatzeko berariazko helburu edo/eta ekintzak dituzten programak bereiztea. Hala ere, taulan ikus daitekeen bezala, ekintza kopurua oso bestelakoa da sail batzuetan eta besteetan. Hala da, alde batetik, sail bakoitzak sektore-jarduera ezberdinak dituelako helburu eta, beste alde batetik, sail batzuek (esaterako Etxebizitzak eta Osasunak) ez dituztelako berariaz jasotzen administrazio-unitatearen helburuak euren memorietan.

Ondorio gisa esan dezakegu Berdintasunerako Administrazio Unitateek 46 ekintza dituztela euren memorietan, 501.019,45 euroko aurrekontuarekin garatzeko. Zenbateko hori 2011ko ekitaldirako aurrekontuetan azaldutako soldatekin kalkulatu da, kontzeptu horiek jasotzean ez genekielako zeintzuk izango ziren administrazio langileen soldatei buruzko 1. taldearen zenbatekoak, negoziatzen ari zirelako.

### **4.3 3. TALDEA. Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.**

**3. TALDEA:** Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.

| Saila                                   | Ekintza kop. | Kreditua, guztira | Kreditu identifikag . gabeko ekintza kop. |
|-----------------------------------------|--------------|-------------------|-------------------------------------------|
| Lehendakaritza                          |              |                   |                                           |
| Herrizaingoa                            | 2            | 384.750           |                                           |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa |              |                   |                                           |
| Ekonomia eta Ogasuna                    | 1            | 8.000             |                                           |
| Justizia eta Herri Administrazioa       |              |                   |                                           |



|                                                           |           |                 |           |
|-----------------------------------------------------------|-----------|-----------------|-----------|
| Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa                     |           |                 |           |
| Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa         |           |                 |           |
| Enplegua eta Gizarte Gaiak                                | 4         |                 | 4         |
| Osasuna eta Kontsumoa                                     | 10        |                 | 10        |
| Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza | 2         | 37.406          |           |
| Kultura                                                   | 5         | 44.500          | 1         |
| <b>3. TALDEA, GUZTIRA</b>                                 | <b>24</b> | <b>475.656€</b> | <b>15</b> |

Sailkapen honetan berdintasuna sustatzeko, diskriminazioak indargabetzeko eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteko antzeman diren ekintzak sartu nahi izan dira. Ekintza horiek ez dute zertan berariaz agertu aurrekontu-programen memorietan berdintasuneko berariazko helburuei lotutako ekintza gisa. Izan ere, gehienetan, aurrekontu-programaren helburu orokorrarekin zerikusia duten helburuak dituzten ekintzak dira, ez dutenak zerikusirik berdintasunaren sustapenarekin.

Guztira 24 ekintza antzeman dira, eta horietatik 15i, erdia baino gehiagori, ezin izan zaie aurrekonturik esleitu eta ezin izan da gastuaren aurreikuspen edo gutxi gorabeherako kalkulurik egin. Antzemandako ekintzen zenbatekoa 475.656 €-koa da guztira. Zenbateko horretatik 64.500 euro behin-behineko edo gutxi gorabeherako zenbatekoak dira, 20.000 Ingurumenekoak eta 44.500 Kulturakoak. Beraz, 411.156 eurokoa da aurrekontuko ekintzen zenbatekoa.

**4.4 4. TALDEA. Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.**

**4. TALDEA:** Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA



erakusten duten programak.

| Saila                                                     | Ekintza<br>kop. | Kreditua,<br>guztira     | Kreditu<br>identifikag<br>. gabeko<br>ekintza<br>kop. |
|-----------------------------------------------------------|-----------------|--------------------------|-------------------------------------------------------|
| Lehendakaritza                                            | 2               | 118.931,09               |                                                       |
| Herrizaingoa                                              | 1               |                          | 1                                                     |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa                   |                 |                          |                                                       |
| Ekonomia eta Ogasuna                                      | 1               |                          | 1                                                     |
| Justizia eta Herri Administrazioa                         | 7               | 1.809.996                | 3                                                     |
| Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa                     | 8               |                          | 8                                                     |
| Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa         | 15              | 53.161,60                | 13                                                    |
| Enplegua eta Gizarte Gaiak                                | 19              | 1.389.062                | 13                                                    |
| Osasuna eta Kontsumoa                                     | 21              | 4.002.800                | 9                                                     |
| Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza | 4               | 31.000                   |                                                       |
| Kultura                                                   | 5               | 22.500                   | 2                                                     |
| <b>4. TALDEA, GUZTIRA</b>                                 | <b>83</b>       | <b>7.427.450,6<br/>9</b> | <b>50</b>                                             |

Sailkapen honetan aurrekontu-programen memorietan horrela agertu ez arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten ekintzak, jarduerak edo berariazko partidak sartu nahi izan dira. Hau da, sailak berdintasunaren alde egiten dituen ekintzak dira, baina hainbat arrazoren ondorioz ez dira formalki azaltzen aurrekontu-dokumentazioan.

Hala ere, generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko atalean aipatu den bezala, kasu batzuetan oso zaila da berdintasun-ekintzak laburbiltzea. Hainbat kasutan gutxi gorabeherako zenbatekoak kalkulatu dira, eta beste batzuetan, berdintasuna sustatzeko partidak egongo direla jakin arren, ezin izan da zenbatekorik laburbildu, esaterako berdintasun arloko zenbait irizpide betez gero ematen diren diru-laguntzetan. Era berean, gogoan izan behar dira duten izaeraren ondorioz aurrekontu-programa batean ere sartu ezin diren, edo aurrekontu-programa batekin ere identifikatu ezin izan diren ekintzak, ondorioz ezin izan direla



talde batean ere sartu. Horixe gertatu da, adibidez, Saileko Talde Teknikoekin eta EUSTATEN sortu den berdintasunerako lan-taldearekin.

Nolanahi ere, identifikatutako 33 ekintzen aurrekontu-kreditua 7.427.450,69 eurokoa da.

#### 4.5 Ekintzak antzeman zaizkien aurrekontu-programen kopurua.

| Saila                                                     | Ekintzak antzeman zaizkien programen kop. | Antzeman dako ekintzen kop., guztira | Kreditu identifikag. gabeko ekintza kop., guztira |
|-----------------------------------------------------------|-------------------------------------------|--------------------------------------|---------------------------------------------------|
| Lehendakaritza                                            | 3                                         | 9                                    |                                                   |
| Herrizaingoa                                              | 2                                         | 13                                   | 1                                                 |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ierketa                    |                                           |                                      |                                                   |
| Ekonomia eta Ogasuna                                      | 2                                         | 7                                    | 1                                                 |
| Justizia eta Herri Administrazioa                         | 2                                         | 9                                    | 1                                                 |
| Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa                     | 5                                         | 9                                    | 3                                                 |
| Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa         | 8                                         | 19                                   | 8                                                 |
| Enplegua eta Gizarte Gaiak                                | 8                                         | 31                                   | 13                                                |
| Osasuna eta Kontsumoa                                     | 6                                         | 32                                   | 17                                                |
| Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza | 5                                         | 16                                   | 19                                                |
| Kultura                                                   | 4                                         | 3                                    | 3                                                 |
| <b>GUZTIRA</b>                                            | <b>45</b>                                 | <b>148</b>                           | <b>66</b>                                         |

2012. urteko aurrekontuak osatzen dituzten 182 aurrekontu-programetatik 45 programatan antzeman dira berdintasun-ekintzak, hau da, % 24,72tan. Programa horietan 148 ekintza antzeman dira, nahiz eta 66k ez duten aurrekontu-partidarik edo ezin izan den horietarako zenbatekorik kalkulatu edo aurreikusi.



## 5.- DIRU-SARRERAREN AZTERKETA.

EAEko zerga- eta finantza-errealitatea aztertzea ezinbestekoa da aurrekontua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko eraginak aztertzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa-sistemaren ezaugarri nagusia da zerga-sistema osatzen duten zerga gehienak biltzeko gaitasuna duela. Foru-ogasunek kudeatu eta biltzen dituzte zerga-sistema osatzen duten zerga guztiak, Ekonomia Itunaren araudian emandako banaketari jarraituz, hau da, Autonomia Fiskala izenekoari jarraituz. Horrek esan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoak zerga-sistemako oinarrizko zerga guztiak kudeatu, bildu eta diseinatzen dituela, murrizketa harmonizatuari lotuta. Horrela bada, lurralde historikoek nolabaiteko gaitasuna dute zergak arautzeko, baita zergok kudeatu eta biltzeko autonomia ere.

Hala ere, Eusko Legebiltzarrari dagokio zerga arloko koordinazio, harmonizazio eta lankidetzari buruzko arauak onestea.

Araudien ikuspegitik, **zuzeneko zergei** dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak berezko zerga hauek ditu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), Oinordetzen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

**Zeharkako zergei** dagokienez, zerga handi bien (Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Bereziak) harmonizazio-maila ia erabatekoa da, zerga horien izaeratik eratorrita, Europar Batasun osoan ere harmonizatuta daudela. Gauzak horrela, foru-ogasunen eskumenak zergaren kudeaketaren alderdi zehatzen ingurukoak baino ez dira. Aldiz, bilketarako gaitasuna kontuan hartuta zeharkako zergen arteko hirugarrena (Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga) modu autonomoan arau dezakete, neurri handi batean, EAEko erakundeek.



## GENEROAREN ERAGINA DIRU-SARRERETAN.

Itxuraz neutroa den arren, zerga guztiek dute generoen arteko desorekaren bat, esplizituki edo inplizituki agertzen dena, duen izaerarekin bat etorrita (Stotsky, 2005). Generoaren ondoriozko bereizketa esplizitua nabariago azaltzen da pertsona fisikoen gaineko **zuzeneko zergetan**. Generoen arteko desoreka inplizitu nabariena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren familia-mailako zergapetze guztietan ikusten da. Banakako zergapetzeetan ere egon daiteke generoen arteko desoreka, zergak abantailaren bat ematen badio ezkontideren bati duen egoera zibilaren ondorioz.

**Zeharkako zergei** dagokienez, ez dute generoen arteko desoreka espliziturik izaten, ondasun edo zerbitzuak eskuratzean edo ondasun eta eskubideak eskualdatzean sortzen delako zerga. Hala ere, badaude zerga horien desoreka azaltzen duten adibideak, hain zuzen ere emakumeek bakarrik eskuratutako produktuei ezartzen zaienean zerga, eta ez gizonak eta emakumeek bereizi gabe eskuratutako beste antzeko produktu batzuei. Halaber, zerga-tratu ezberdina ere egon daiteke eroslearen izaeraren arabera, irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunde eta gobernuak (zentrala, autonomiakoa eta/edo tokikoa) salbuetsita daudelako eragiketa jakin batzuetan.

Albiñanaren hitzetan (1974), zerga pertsonalak dira “pertsona juridiko (sozietate) edo indibidual (fisiko) bati gaitasun ekonomikoak merituetan azaltzen dizkietenak, hau da, zerga-egitatea pertsona baten inguruan dutenak. Aldiz, «benetako» zergetan, gauza batek edo ondare batek zehazten du ordainarazpena, eta pertsona zerga-gaiaren titularra baino ez da, hau da, ez da «zerga-egitatearen» beste elementu bat”.

Gogoeta hori oinarri hartuta, generoaren ikuspegitik, guztiz ezberdinak diren hiru taldetan sailka daitezke zergak. Hona hemen:



- subjektu pasiboak pertsona fisikoak diren zerga pertsonalak: PFEZ, Ondarearen gaineko Zerga (ezabatuta) eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga

- subjektu pasiboak pertsona juridikoak diren zerga pertsonalak: Sozietateen gaineko Zerga

- benetako zergak: gainerako zergak.

#### ZUZENeko ZERGEN ERAGINA

Zuzeneko zergak zuzenean aplikatzen zaizkie pertsona edo enpresei, eta pertsonen lan formaletik eratorritako lanak dira, baina:

- Ez dute ordaindu gabeko lana kontuan hartzen, eta emakumeek egin ohi dute lan hori.

- Ez dute ezkutuko ekonomian egindako lana kontuan hartzen. Gizonek eta emakumeek egin ohi dute, baina emakumeek ordezkaritza handiagoa dute sektore horietan, ezegonkortasun eta pobrezia egoerak indartuz.

- Ez dituzte kontuan hartzen laneko diskriminazioa, langabezia-tasa handiagoa dela emakumeentzat, segregazio horizontala eta bertikala, ezegonkortasuna, etab.

Generoaren ondoriozko bereizketa esplizitua nabariago azaltzen da pertsona fisikoen gaineko zuzeneko zergetan. PFEZ da geure zerga-sisteman genero-eragina nabariaren azaltzen duen zerga, emakumeek eta gizonek zerga-aldian jasotzen dituzten errentei ezartzen dizkielako zergak. Gainera, generoen arteko desoreka inplizitu nabariena PFEZen familia-mailako zergapetze guztietan ikusten da (baterako tributazioaren kasuan). Eraitza da diru-sarrerak jasotzen dituen ezkontide bakarra duten ezkon-bikoteei laguntzen zaiela, zerga-arintzearen bitartez. Zerga-arintze hori handiagoa izango da emaztearen lan-errenta txikiagoa eta senarraren lan-errenta handiagoa den heinean. Hala ere, banakako zergapetzeetan ere egon daiteke generoen arteko desoreka, zergak abantailaren bat ematen badio ezkontideren bati duen egoera zibilaren ondorioz.

Familia-mota ezberdinei salbuetsitako gutxienekoak asimetrikoak aplikatzearen ondorioetako bat da PFEZak ez dituela modu homogeneoan



zergapetzen familia guztiak, tratu mesedegarriagoak ematen baitizkie guraso biko familiei guraso bakarreko familiei baino —gehienetan (% 85 baino gehiago) emakumeak dira guraso bakarrak—, fiskalitate txikiagoa baitute.

### *Eragina soldata-errentetan*

PFEZek eragin ezberdina du soldatapeko gizonezko eta emakumezko langileengan, lan-merkatuan gizonek eta emakumeen duten banaketa ez delako simetrikoa, batez ere gizarte- eta ekonomia-egoera ezberdinak dituztelako eta familia barruko zaintza-lana ezberdin banatuta dagoelako. Beraz, zergaren gaur egungo konfigurazioan genero-eraginak duen balorazioa eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa da soldatapeko langileen banaketa-funtzioa eta dentsitate-kurba jakitea, dauden zerga-datuei jarraituz.

Europako Batzordeak azken urteetan adierazi du bere lehentasunezko helburuetako bat “gizarte- eta zerga-eskubideak indibidualizatzea” dela, gizonek eta emakumeek subjektu independente gisa jardun ahal izateko lana bilatu eta lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko orduan, eta, horrela, sexuagatiko diskriminazio-tratua saihesteko. Gure zerga-sistema oztopoa da tratu-berdintasun hori lortzeko, eta herrialde kideei zerga-sistemak erreformatzeko eskatu zaie, banakako zerga pertsonalak ezartzearen mesedetan.

### ZEHARKAKO ZERGEN ERAGINA

BEZa estatu-mailako zerga da, eta Estatuari dagozkio horri buruzko arauak ezartzeko eskumenak. Hala ere, genero-ikuspegitik ere azter daiteke, batez ere salbuetsitako zerga-egitateek eta hurrenez hurren % 7 eta % 4an murriztu eta txit murriztutako tasek eragindako zerga-gastuen bitartez.

Beste alde batetik, BEZaren izaera ez da oso mailakakoa, zuzenean dagoelako lotuta kontsumoarekin. Familietako aurrekontuan oinarritzko produktuen kontsumoa pisu erlatibo txikiagoa da errenta-mailetan gora egin



ahala. Horrenbestez, kontsumoaren gaineko tributazioak eragin handiago du baliabide gutxiko pertsonengan eta aurrekontu gehiena familiako kontsumorako erabiltzen duten pertsonengan (horixe da emakumeen kasua). Erregresiboak dira, tasa berbera aplikatzen baitzaie produktu bera kontsumitzen duten pertsona guztiei, pertsonen arteko errenta-ezberdintasunak kontuan hartu gabe.

DIRU-SARREREN GENERO-ERAGINA E.A.E.REN 2012rako  
AURREKONTUETAN.

Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak badaki zerga guztiek generoen arteko desorekak dituztela eta, beraz, garrantzitsua dela generoaren ikuspegitik aztertzea. Hala ere, desoreka horren jakinaren gainean egon arren, sexuaren arabera bereizitako estatistika eta adierazlerik ez dagoenez, ezinezkoa da EAEko fiskalitatearen eta EAEren 2012. urterako aurrekontuetan zehaztutako diru-sarreraren inguruko azterketa sakona egitea. Uste dugu hurrengo ekitaldietan gai horri ekin beharko zaiola, aurrekontuak genero-ikuspegitik egiteko helburua izango duen proiektu baten barruan.

Hala ere, EUSTAT pertsona fisikoen errentari buruzko estatistika egiten hasi da, eta horrek aukera emango du hurrengo ekitaldietan zerga-egitateen aitorpenetan egon litezkeen asimetriak zabaltzeko, esaterako honako alderdi hauetan: errentak eskuratzea, murrizketa eta kenketak aplikatzea, hobariak, lanaren errentaren banaketa zergadunaren sexuaren arabera, etab.

Gainera, komeniko litzateke adierazle eta azterlanak egitea Administrazioaren bilketan lan-errenten eta enpresa-, lanbide- eta kapital-errenten bilketaren ehunekoa zein den jakiteko, bai eta bilketa horiek zertarako erabiltzen diren ere. Horrela, aberastasunaren banaketa bidezkoa den ala ez ikusi ahal izango litzateke.



BEZari dagokionez, zerga-egitate salbuetsiek eta murriztu eta txit murriztutako tasek (hurrenez hurren % 7 eta % 14koak) eragindako zerga-gastuak aztertzeko aukera emango duten adierazleak egin beharko dira.



## 6.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Lehenengo eta behin adierazi behar da oso zaila dela aurrekontuen legearen generoaren araberako eraginaren txostena egitea lege-aurreproiektuaren testua bera izan gabe. Izan ere, lege honek aukera ematen du zenbatekoetan doikuntzak eta aldaketak egiteko azken ordura arte, hau da, Gobernu Kontseiluak onetsi arte (2012/10/26) eta Legebiltzarrera heldu arte, gainerako txostenak erantsi behar direla bertan, honakoa barne. Nolanahi ere, honako material eta informazio hau egon da txosten hau egiteko: alde batetik arau-testuaren txantiloia, ez dela urterik urtera aldatzen eta, bestetik, sail bakoitzak eman ahal izan dituen zenbatekoak, nahiz eta gutxi gorabeherakoak izan.

Txostenean aipatzen diren eta berdintasunaren aldeko ekintzekin lotuta dauden datu ekonomikoak gutxi gorabeherakoak izateaz gain, aipatu beharra dago sailek berdintasunaren alde egindako jarduera guztiek ez dutela zuzeneko islarik aurrekontuan. Horixe gertatzen da, esaterako, Saileko Talde Teknikoak ordezkatzan dituzten pertsonek egindako lanarekin, EUSTATEko berdintasunerako lan-taldearekin, administrazioaren eguneroko lanean genero-ikuspegia sartzeko aktiboki parte hartzen duten saileko beste langile batzuekin, kontratu, diru-laguntza eta laguntzetan balorazio-irizpideak sartzearekin, etab.

Azkenik, gainerako sailek euren aurrekontu-programak aztertu ondoren aurkeztu dituzten helburu eta ekintzen artean 45 programa antzeman dira (2010ean 18 izan ziren eta 2011n 34). Gainera, berdintasunaren aldeko 148 ekintza antzeman dira (2010ean 45 antzeman ziren), eta horrek esan nahi du nabarmen egin dela aurrera berdintasun-politiketan. Antzeman diren 148 ekintzetatik 82k aurrekontu finko edo esleitura daukate, edo gutxi gorabeherakoa.



Arau honen neurria dela eta, zaila da generoaren araberako eraginaren aurreikusteko moduko balorazioa egitea, hau da, eragin positiboa edo negatiboa izango duen emakume eta gizonen berdintasuna sustatzen araua aplikatuko den gizarte-testuinguruan. Izan ere, bereziki zaila da, gizarte-testuingurua kasu honetan EAEko herritar guztiak direlako, eta sektoreak eremu guztiak hartzen dituelako, hezkuntza, osasuna, kultura, etab.

Hala eta guztiz ere, honako azterketa hau egin da:

#### ARAUDIA

Arestian aipatu den bezala, aurrekontu-programetan egituratutako diru-sarrera eta gastuek osatzen dute funtsean lege hau. Horrek eragotzi egiten du 4/2005 Legearen 14. artikuluan ezarritakoa betetzea, bertan ezarritakoaren arabera, lege horretan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko beharrezko ekonomia-baliabideak zehaztu behar baitira. Emakunderi organismo autonomoa den aldetik ematen zaion aurrekontua salbuetsita, ez da berdintasunaren aldeko beste partidarik zehaztu.

Lege-testuan hizkera ez-sexista erabiltzeari dagokionez, aginduaren eta bidezko araudiaren berri eman zaio testua egiteko ardura duen pertsonari. Era berean, hizkuntza berrikusi eta egokitzeko tresnak ere eman zaizkio, araudi-testuan aplikatzeko.

#### EMAKUME ETA GIZONEN PARTAIDETZA ARAUA EGIN ETA GAUZATZEKO PROZESUAN.

Txosten honen 3. atalean EAEko administrazioako langileen ordezkaritza aztertzen da, eta bertan ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzan ordezkaritza orekatua dagoela goi-kargudunei dagokienez. Talde horrek garrantzi handia duenez aurrekontuak egiteko erabakiak hartzen, esan liteke eragin positiboa dagoela araua egin eta gauzatzeko prozesuan emakumeek eta gizonek duten partaidetzari dagokionez. Hala ere, administrazioako gainerako langileak kontuan hartuz gero, zenbaki absolutuetan gizon baino emakume gehiago egon arren, gizonen ordezkaritza emakumeena baino handiagoa da goi-



mailetan, hau da, zerbitzu-buruen eta arloetako arduradunen artean, eta horiek ere zuzenean hartzen dute parte araua egiteko orduan. Gauzak horrela, arauan eta aurrekontu-programetan ez da aurreikusi goi-mailako lanpostuetan (batez ere buruak eta arduradunak) emakume gehiago edo emakumeen ordezkaritza handiagoa egoteko aukera, eta horrek eragin negatiboa esan nahi du.

Gainera, kontuan izan behar da arau hau Eusko Legebiltzarrean onetsiko dela, zuzenketak egin ostean, eta bertan bi legebiltzar-taldek bakarrik betetzen dute parekotasun printzipioa, EAJk eta PSEk, hain zuzen ere.

#### BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA.

Txosten honen 2. atalean ondorioztatu da laneko ezegonkortasunak emakumeei gehiago eragiten diela gizonei baino, eta sexu bien arteko soldata-ezberdintasuna handia dela, emakumeen soldata gizonena baino % 26 txikiagoa baita. Erosteko ahalmenari dagokionez oso handia da generoen arteko desoreka, eta horrek esan nahi du pobreziak eragin handiagoa duela emakumeengan. Gaur egun, pobrezia-arriskuan dauden pertsona guztiak kontuan hartuta, % 82,9 emakumezkoak dira.

Uztartze sozialeko neurriei dagokionez, oraindik ere emakumeek eskatzen dituzte batez ere lanaldi-laburtzeak, eskatutako laburtzeen % 6,2 bakarrik baitira gizonenak. Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziak direla eta, eskatzen dituzten gizonen kopurua ez da % 3ra iristen.

Emakumeek, oro har, gizonak baino gehiago erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak. Hala ere, emakumeek sarriago erabiltzen dituzte osasun-zentroak, eta gizonak gehiagotan egoten dira ospitalean. Haurdunaldia eta erditzea dira emakumeak osasun-zerbitzuetara joateko arrazoi nagusia.

Kultura, generoen arteko desoreka aurreko urteetan baino handiagoa da teknologia berriak erabiltzearekin lotuta. Kirola dela eta, oraindik gehiago egiten dute gizonak emakumeek baino.



Emakumeek gizonek ematen duten denboraren bikoitza baino zerbait gehiago ematen dute etxeko lanak egiten. Gainera, emakumeek gizonek baino denbora gehiago erabiltzen dute aisiarako.

Baliabideetarako sarbideari dagokionez, eta antzemandako ezberdintasunak kontuan hartuta, honako hauek dira ezberdintasun horiek kendu edo txikiagotzen lagun dezaketen programetan antzemandako ekintza edo/eta helburu batzuk:

- Lehendakaritza: Pobrezia-arriskuan edo/eta gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea, Euskal Etxeentzako ekonomia-prestazioen bitartez.
- Enplegua eta Gizarte Gaiak. Lan-baldintza egokiak sustatzea, inguru iraunkorrean, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuetan parte hartzen duten pertsona guztiei. Modulu ekonomiko egokiak eta gizarte-klausulak ezartzea zerbitzuak adosteko eta/edo kontratatzeko, egun dauden lan-erregulazioak betetzeko eta zerbitzuak emateko ez ezik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gauzatzeko lan-baldintzak, baldintza profesional eta trebakuntzarako baldintza egokiak ezartzeko ere.
- Familien eredu-aniztasunetik eta kide guztien errespetutik abiatuta, familiek gure gizartean betetzen dituen eginkizunak sendotzea, bere partaideen autonomiaren, berdintasunaren eta garapenaren errespetua sustatuz. Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak ezartzea. Mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentziak eta lanaldi-murrizketak. 3 urtez azpiko adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeagatiko laguntzak. Uztartzeko eta uztartze-neurriak garatzeko tresnak eskaintzeko Concilia+ Uztartzeko Ataria mantentzea.

Gainera, Berdintasunerako Administrazio Unitateek zeharka egiten dituzten ekintzak ere aipatu behar dira, esaterako sentsibilizazio-kanpainak hedatzea, prestakuntza-proposamenak, etab.



Egia da uztartze-neurriak badaudela, baina ez da ikusi, adibidez, mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziak edo lanaldi-laburtzeak hartzen dituzten gizonen kopurua handitzeko neurri zehatzik. Gainera, ez da erantzukidetasuna aipatu eremu honetako berdintasun-politiken printzipio gisa. Ez da gizonen erantzukidetasun-neurririk ezarri etxeko lanetan, eta ez da enplegu-egiturarik egokitu bizitza pertsonal eta familiarraren arabera, eta ez da laguntza ekonomikoak eta zerga-neurriak ezartzeko zerbitzurik sortu ez egokitu.

#### GIZARTE-ARAUAK ETA BALIOAK

Esku-hartzeko esparruetan emakumeek eta gizonek duten egoera aztertzean aurkeztutako datuetan argi ikusi da oraindik emakumeek egiten dutela ugaltze-lan gehiena, eta gizonek ekoizte-lan gehiena. Gainera, argi dago emakumeak gehiengoa direla ordaindutako laneko zenbait jarduera eta sektoretan (erizaintza, administrazio-kideagoak eta administrari laguntzaileak, zerbitzuen sektorea, etab.), eta horrek segregazio horizontala azaltzen du. Zenbait sektore eta taldetan segregazio bertikala ere ikusten da, administrazioko A1 taldean, emakume langileen % 85 zerbitzuen sektorean dabilta lanean, % 5,1 eraikuntzan, etab.

Gizarte-arauei eta balioei dagokienez, eta antzemandako ezberdintasunak kontuan hartuta, honako hauek dira programetan antzemandako ekintza edo/eta helburu batzuk:

Honako helburu edo ekintza hauek antzeman dira:

- Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia programak balioak aldatzearen aldeko helburua du, hau da, Gazteei industriaren errealitatea ezagutaraztea, Ikasleek enpresak bisitatzearen bitartez. Halaber, merkataritza-dentsitate txikiko eremuetako proiektua ere badu, eta honakoa da bere helburua: Merkataritza-dentsitate txikiko eremuetako (landa-ingurunea eta abar) saltoki kopurua mantentzea



edo igotzea biztanleriaren premiei erantzuteko, haien autonomiari eutsiz eta haien edo zaintzaileen joan-etorriak saihestuz. Bizkaiko Parke Teknologikoak ere badu programa bat, ikasleek eta irakasleek zentroako bisitak egin ditzaten, Industriaren errealitatea ikasleengana hurbiltzeko. Donostiako Parke Teknologikoaren helburua enpresa-arloko kultura aldatzea da, uztartze erantzukiderantz.

- EEEK berdintasun-helburu bat dauka, emakumeen presentzia bultzatzea lan-sektore maskulinizatueta, hain zuzen ere.
- Immigrazio Zuzendaritzaren ekintza elkarteak indartzeko plan bat diseinatu eta gauzatzea da: Elkarteak indartzeko plan bat diseinatu eta gauzatzea. Plan horretan parte hartzeko laguntza-ildoak biltzen dira, emakumeen elkarten ahalduztzea azpimarratuz bereziki.
- Jardunaldia Emakunderen berdintasunerako foroan: Prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazioa eskaintzea immigrazioari, kulturen arteko bizikidetzari eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero-nortasunari buruz.
- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzaren xedeak honako hauek dira: Etorkinei harrera egitera eta integratzen laguntzera bideratutako politikak eta ekintzak bultzatzea. Askatasun afektibo-sexuala ahalbidetzen duten baldintzak sustatzea. Tratu-berdintasunaren alde eta jatorriak, kulturak, orientazio afektibo-sexualak eta genero-nortasunak eragindako diskriminazioaren kontra lan egitea.
- Lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzea faboratzeko, haur-zaintzaileen sare komunitarioak bultzatzea (Haur-Etxeak – Nidos Familiares).
- Uztartzeari eta erantzunkidetasunari buruz sentsibilizatzeko ekintzak garatzea. Familia-aniztasunari eta erantzunkidetasunari buruzko informazioa emateko eta horren inguruko sentsibilizaziorako programak. Aitareen rola sustatzea.
- Osasuna: Herriarren eskubideen eta betebeharren gaur egungo katalogoa garatzeko aurrera egitea
- Gaixoen eta haien familien kolektiboen bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiten dituzten elkarten proiektuentzako laguntzak (ez da



zehazten, baina gaixotasun kronikoak dituzten emakumeen bizi-kalitatea eta autonomia hobetuko da, elkarte eta GKEentzako diru-laguntzen bidez osasuna hobetzeko jarduerak sustatuz. Era berean, gaixotasun kronikoak dituzten eta mendetasunen bat duten pertsonekin bizi diren emakumeen bizi-kalitatea eta autonomia hobetuko dira)

- Ingurumena. Arrantza-sektorearen eta sektoreko pertsonen irudia hobetzea. Sektorearen erakargarritasuna hobetzea, bertan lan egin ahalko luketen pertsonentzat. Bereziki, identifikatutako 3 kolektiboentzat: gazteak, emakumeak eta atzerritarrak. Arrantzaren sektorean emakumea erabat integratzeko egitasmo bat egitea, besteak beste sektorean emakumea profesionaltzea eta lan-baldintzak hobetzea sustatzeko azterketa bat eginez.
- Kultura Saila. Kirolean gizon-emakumeen berdintasuna sustatzeko programa . Sentsibilizazio-ekintzak: Tolerantzia, sexu-aukeraren askatasunaren aurrean, sexu-aukeraren dibertsitatearen aurrean. Estereotipoak apurtzea, eta emakume beregain eta ekintzaileen ereduak agerraraztea. Erantzunkidetasuna espazio pribatuan.
- Emakumeen osasunarekin loturiko jarduera fisikoak sustatzeko ekintzak: Emakumeak federazio-kiroletik urrunago daudenez, eta gertuago osasunarekin zerikusia duten beste kirol-praktika batzuetatik, plan honen bitartez eragin handiagoa lortuko da beraiengan.

Agian txostenaren atal hau da eragin positibo handiena duena, alde batetik zerrendatu diren ekintzengatik, eta bestetik Berdintasunerako Administrazio Unitateek egindako lanarengatik. Unitate horien lanak ezberdintasunak oinarritzen diren egiturak eta horiek eratu, errepikatu eta indartzen dituzten mekanismoak zabaltzen ditu.

## GENERO-INDARKERIA



Emakumeen kontrako indarkeriaren alorrean Emakundek eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egindako jardueraz gain, berariazko beste ekintza batzuk antzeman ziren, esaterako:

- Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren alorretan Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren arteko polizia-protokoloen prestaketa koordinatzea.
- Justizia Zuzendaritzaren hitzarmena Legelarien Euskal Kontseiluarekin, genero-indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen alorreko jardueretarako
- Genero-indarkeriaren biktimentzako etxebizitzaren adjudikazio zuzenak, Etxebizitza Sailaren esku.
- Nerabeentzako hezkuntza afektibo-sexualaren programak, Osasun Sailak finantzatuta, genero-indarkeria prebenitzeko.
- Gazteria Zuzendaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz eta genero-indarkeriari buruz antolatutako ikastaroak.
- Gazteria Behatokiak sexu-dibertsitateari eta genero-indarkeriari buruz egindako telefono-inkesta.



7.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA  
BULTZATZEKO ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK.  
AURREKONTUAK GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA

Aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzea berdintasun-politikek aurrera egiteko lehentasunezko gaia da nazioartean. Izan ere, 2001. urtean, Europar Batasunaren esparruan, aurrekontu-prozesuko maila guztietan generoaren azterlana sartzeko agindeia egin zitzaien Europako gobernu guztiei eta, gaur egun, estatu kideen erdia baino gehiago hasi dira metodologia hori maila ezberdinetan aplikatzen. 2010. urtean 5 urteko atzerako kontaketa hasi zen 2015. urterako eta Europar Batasunaren hainbat administrazio-mailatan genero-aurrekontuak sartzeko. ELGAk, UNIFEMek eta Kontseilu Nordikoak Bruselan antolatutako Goi Mailako Konferentzian 2015. urtea ezarri zen Europar Batasuneko estatu kideek AGA izenekoa (aurrekontua genero-ikuspegitik aztertzeke metodoa) abiarazteko.

EAE mailan aipatzekoa da 2003. urtean Emakundek AGA ekimen bat garatu zuela, Eusko Jaurlaritzako sei sailetan egindako esperientzia pilotu baten bitartez, administrazioa ikuspegi horren garrantziaz sentsibilizatzen hasteko. Hala ere, proiektu pilotua amaitu ostean, ez da ekimen horrekin jarraitu.

Gaur egun, Emakunde lan-metodologia bat definitzen aurreratzeko aukera emango duen proiektu batean dabil lanean, hurrengo ekitaldietan zehatzago, etengabeago eta osatuago aztertu ahal izateko aurrekontu-programen generoarekiko sentikortasuna eta gizonen eta emakumeen egoeran eragiten duten eragina. Proiektu hori abiarazteko gaian adituak diren pertsonen aholkularitza eta laguntza teknikoa dauzka, baita Enplegu eta Gizarte Gaietako, Herri Administrazio eta Kultura sailen lankidetzak konpromisoa ere. Proiektu horrekin aipatutako sailen 2011ko ekitaldiko aurrekontuen gauzatzea aztertu da eta, horrexegatik, gaur egun ez daukagu proiektua zehatzago baloratzeko aukera emango duten datu eta azterketarik.



Arestian aipatutako guztia dela eta, beharrezkoa da behin betiko aurreratzea aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia sartzeko bidean. Horrenbestez, premiazko eta lehentasunezkoa da sailen arteko berariazko lantalde bat sortzea, Aurrekontu Zuzendaritza buru duela (Emakunderekin eta gaian adituak diren pertsonekin lankidetzan estuan), tresna estrategiko bat sortu ahal izan dadin, emakume eta gizonentzako aukera-berdintasunak politika publikoetan duen benetako integrazio-maila ebaluatu ahal izateko.

Horrek esan nahi du urtero, aurrekontuak arautzen dituen araua egitean, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko politiken helburuak lortzeko aurrekontuen ekarpena zehaztu beharko dela. Aurrekontu-programa bakoitzak genero-ikuspegia sartzeko beharra onartzen duen identifikatuko litzateke, aurrekontuetako diru-sarrera eta gastuen politikak emakumeengan eta gizonengan duen eragina zehazteko bitartekoak ematen dituen tresna estrategiko baten bitartez. Ondorioz, aurrekontu-esleipenak aztertu beharko dira, emakumeen eta gizonen aukera ekonomiko eta sozialei nola eragiten dieten neurtzearen. Arlo politiko guztiak aipatzen ditu, gobernuko maila guztietan. Hori dela eta, ezinbestekoa da konpromiso politiko irmoa izatea maila guztietan.

Gainera, Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak, badakienez zaila dela hori gauzatzea, honako neurri hauek proposatu ditu hurrengo urteetan aurrekontuen generoaren araberako eraginari buruzko txostena egitean kontuan hartzeko:

- Irizpideak ezartzea sail bakoitzean berdintasun-politikak bultzatzen eta administrazioan genero-ikuspegia sartzen denbora ematen duten langileek egindako lanaren ondoriozko zenbateko ekonomikoa kuantifikatzeko.
- Ekintzak graduatzeko irizpideak ezartzea berdintasunerako administrazio-unitateen artean, hau da, berdintasunerako unitateek komunean dituzten ekintzei lehentasun bera ematen saiatzea.


